# Goienkaria

2010eko urriaren 22a > Egubakoitza > X. urtea > 439. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak
www.goiena.net TOKIKOM



"Goienako bazkide eta kolaboratzaileen lana aitortu eta eskertu gura dugu"

**Estepan Plazaola**
Goienako lehendakaria > 08

**G2a** Txotxongilo mostra Bergaran asteburuan > 31

**ARETXABALETA**
Gastronomia eta folklore jaialdia egingo dute etzi Herriko Plazan > 22

**ANTZUOLA**
Armarriaren gaineko parte-hartze prozesua aurkeztu dute > 25

**KIROLA**
Gaur egingo dute, 20:00etan, gaueko Tafyd krosa Arrasaten > 28

**JENDARTEA** > ELKARTASUNA

## 190 odol emaileri diploma

Debagoieneko eta Debabarreneko emaileek jaso dute etzi, Elgetan > 04

**NATURA** > AIZKORRI-ARATZ

## Arantzazuko parketxea urte amaierarako bukatuko dute

Aizkorri-Aratz parke naturaleko parketxea egiten dihardute Arantzazun, Gandiaga topagunean. Obrak bukatu dituzte; orain geratzen da interpretazio zentroa atontzea. Ukimen-pantaila eta ikus-entzunezkoen bitartez Aizkorri-Aratz parkeko txokoak ezagutzeko aukera egongo da. Urte amaierarako bukatuta egotea nahi dute. > 04

**JENDARTEA** > HEZKUNTZA

## Esperientzia Eskola hasi da Bergaran

32 erretiratuk eman dute izena; Arrasaten 3. ikasturtea du > 11




**OROIMENAREN AUTOBUSA** Fusilatuen senitartekoek egin zioten harrera atzo, Aretxabaletako Durana kalera iritsi zenean. MIRARI ALTUBE

**OROIMEN HISTORIKOA** > ESPAINIAKO GERRA

# Gerra garaian fusilatutako 122 debagoiendarrendako izar bana

**EKITALDIA** Oroimenaren Autobusa Aretxabaletara iritsi zen atzo eta bailarako fusilatu bakoitzeko izar bat itsatsi zioten

**OROIMENA** Atzo 74 urte bete ziren Hernanin 19 debagoiendar fusilatu zituztela, eta hori ere ekarri zuten gogora

**ALDARRIKAPENA** Lau Haizetara Gogoan batzordeak justizia egin behar dela berretsi du, "berriz halakorik ez gertatzeko" > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Iritzia** > 06
**Gutunak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Herriak** > 11-27
**Kirola** > 28-29
**Kultura** > 32-33
**Gazteak** > 34
**Sailkatuak** > 35
**Telebista-Irratia** > 36
**Berri-zakua** > 36-37
**Eskelak** > 36-37
**Non-zer** > 38-39

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO GAZTEEK?

**JENDARTEA** > EUSKARA

## Gurasolandia jolasparkea Arrasaten

Gurasolandia gurasoendako jolas parkearen bigarren edizioa azaroaren 2tik 7ra egingo dute aurten, Arrasaten. Herriko hainbat gunetara zabalduko dute, gainera, Txatxilipurdik antolatutako ekimen berritzailea. > 13

## Gaur hasiko da Danbaka musika lehiaketa 2010

Elgetako Espaloia, 22:30
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro)

> Black River
> Desprezio
> Lord Witch
> La-Tox

DANBAKA

**GERTAKARIAK** > KALEAN EGINDAKO KALTEAK

# "Ezezagunek" egindako apurketak milaka euro kostatzen zaizkigu

**OHIKOAK** Seinaleak, piboteak, edukiontziak... kaltetzea ohiko bihurtu da asteburuetan, gauetan

**GASTUA** Kalteak konpontzea udalen ohiko gastuetan sartzen da; ez dago kasu horietarako partida berezirik

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Noizbehinka albiste bihurtzen dira kalean –normalean, gauaren babespean eta aste bukaeretan edo jaien bueltan– "ezezagunek" egiten dituzten apurketak. Noizbehinka, eta oso nabarmenak edo bereziki mingarriak direnean: hori gertatu da irail eta urri partean, Bergarako seminarioko hamar astigarretatik bederatzi apurtuta, erdibituta agertu zirenean; edo Aretxabaletatik Arrasaterako bidegorriko hesiak ere apurtu egin zituztenean (eta ez zen lehenengo aldia).

Horrelako kasu deigarriak salbuespena dira, zorionez. Hala ere, apurketak gertatu, gertatzen dira, sarri, eta debagoiendarroi urtero milaka euro kostatzen zaizkigu.

Aste bukaeran edo jaietan, goizeko ordu txikietan gertatzen diren trauskilkerien errepertorioa zabala da, eta hauek dira ohikoenetariko batzuk: seinaleen zutabeak apurtzea edo tolestea, piboteak apurtzea, edukiontziak iraultzea edo lekuz aldatzea, zakarrontziei eta jesartzeko bankuei eraso egitea, autobus markesinen kristalak apurtzea, faroletako luminariak apurtzea, lorat
egiak kaltetzea –zapaltzea, loreak lapurtzea, ureztatze sistemak ukitzea… Eta horiez gain, zikinkeria:

**Kasu deigarriak ere izaten dira: kalteak Agorrosinen, zuhaitzak moztuta...**

**Zikinkeriak multzo berezia osatzen du: botilak, edalontziak, denetariko zaborra...**

Multzo bereizia osatzen du zikinkeriak: plastikozko edalontziak, botilak eta antzekoak kalean botatzea; zakarrontzi eta zabor poltsen zaborrak kaletik botatzea; kaka, txiza eta botakak. Igogailuetako elementuak ere apurtuta agertzen dira batzuetan, edo igogailuak nahita zikinduta.

**OHIKO GASTUETAN DOAZ**

Apurtutako edo hondatutako herri-altzariak edo instalazio publikoak konpontzeko, udalek ez dute diru-partida bereizturik. Konponketa horiek udalen gastu korronteetan sartzen dira. Eta diru asko da. Moises Altunak, Arrasateko Udaleko Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoen Saileko teknikariburuak, hauxe dio: "Aipatutako kalteak urtero Arrasateko Udalari milaka euro kostatzen zaizkio, batzuk zuzenean pagatzen ditugu eta beste batzuk zeharka gure zerbitzuetako –lorezaintza, kale garbiketa lantaldea edo Udaltzaingoa– baliabideak erabiliz. Adibide moduan, markesinetako beirak aldatzen dagoeneko 5.000 euro inguru gastatu ditugu aurten".

**ASTE BUKAERA GUZTIETAN**

Neurri bateko apurketa edo aldrebeskeria "ohitura" bihurtu direnez, udal arduradunek eta udaltzainek kontuan hartzen dute gertatu egingo direla. Oñatiko udaltzainburu Idoia Laspitak honakoa dio: "Aste bukaera guztietan agertzen da edo seinale bat edo pibote bat apurtuta". Edukiontziak iraulita eta erosketako karrotxoak errekara botata ere agertzen dira. Jose Mari Igartua Oñatiko Azpiegitura, Zerbitzu eta Ingurumen zinegotziak esaten duenez, "horiek txukuntzea

**ZER DIO MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAK?**

**ZER DIO ARAMAIOKO ALKATEAK?**



**> MOTOZERRA HARTU ETA BEHERA** Urtarrilaren 3an goizeko laurak aldera gertatu zen, Oñatin. Antza denez, parrandan zebiltzan lagun batzuek motozerra hartu eta institutu inguruko urkia moztu zuten, tartean zarata ederra sortuz inguruko bizilagunendako.



**> ASTIGARRAK, ERDIBITUTA** Bergarako seminarioko jolastokiko berdegunean zeuden 10 astigar gazteetatik bederatzi erdibitu egin zituzten irailean, bi domeka goizaldetan. Horrez gain, Telefonicako aldapan dauden lorontzi handietako loreak ere apurtu egin zituzten.



**> BIDEGORRIAN BERRERORIA** Hainbat aldiz apurtu dute Aretxabaletatik Arrasatera doan bidegorriaren hesia; orain azkenekoz, irail bukaeran. Zutabeak lekutik atera, gurutze formako egurrak ostikoka apurtu... 3.000 euroko gastua ekarri zuten herriarendako triskantza horiekin.



**> JAIETAKO BEROALDIA** Badirudi jaietan larregi berotzen direla batzuk, eta herri-altzarien kontra eginez lasaitzen direla. Elgetan, iazko Aratuste-barikuan, frontoiko kristalezko ateetako bat (autoarekin jota), kiroldegiko teilatuko urak jasotzeko tutu bat eta banku bat apurtu zituzten.



**> TRISKANTZAK AGORROSINEN** Maiz sartu izan dira Agorrosinera, gauez, eta asto-lanak egin: eguzki plaka bat apurtu; sorosleen aulkiak eta hamakak uretara bota; kristalezko botilak uretan zein berdegunean apurtuta agertu izan dira eta kaka ere egin izan dute uretan.

Udalaren Garbiketa kontratuan sartuta daude eta ez dute bere diru-partidarik".

Hortaz, konponketa horiek udal bakoitzaren aurrekontu edo ohiko gastuetan sartzen dira, modu batera edo bestera, Udalaren arabera: Garbiketa, Mantenua, Lorategiak, Azpiegiturak... Hiru adibide jartzearren, Oñatiko Udalak 207.000 euro inguru gastatzen ditu herria mantentzen; Antzuolakoak, 65.000; eta Aramaiokoak, 6.000, eta poltsa horietan sartzen dira gastu guztiak; baita jendeak gurata egindako kalteak ere, jakina.

Prozedura hauxe izaten da: udaltzainek izaten dute ia beti apurketaren lehenengo berri; horren gaineko txostena egiten dute, Udalari pasatu, eta Udalak konpontzeko agindua ematen du.

Batzuetan, jabego pribatuaren aurkako erasoak izaten dira. Kasu horretan, kaltetuak salaketa ipin dezake, eta Udaltzaingora jo dezake lehenengo pauso gisa.

### EGIN ETA HANKA

Oso gutxitan gertatzen da triskantza edo aldrebeskeria egiten harrapatzea egilea. Ihes egin guran, istripuak ere salatzeke geratzen dira: Oñatin, adibidez, ziztu bizian zihoan gidari bat autoarekin Santa Marina plazako harlosara igo eta arbola bat jo zuen, baina hanka egin zuen. Hortaz, gehienetan, "ezezagun" gisa gelditzen dira egileak.

LABUR

## Adin tarte jakin bateko bihurrikeriak

Batzuetan, umeak nerabe bihurtzeko adin tartean (12-16 urte) egiten dituzte zenbait bihurrikeria, eta horrela gertatu izan da bailarako herri batzuetan ere; Aramaion, kasu. "Garbi ikusita daukagu herriko umeak Arrasatera joaten direnean ikastera, nagusituta-edo sentitzen direla eta horrelako bihurrikeriak egiten dituztela", esaten du Joseba Jauregi zinegotziak. Normalean, gurasoekin hitz egin eta gero konpontzen da arazoa. Hala ere, azken urtean formalago ei dabiltza gaztetxoak.

ESANAK

**"Kalte batzuk zuzenean pagatzen ditugu, eta beste batzuk, zerbitzuetako baliabideak erabiliz"**

**Moises Altuna** > Arrasateko Udal arduraduna

**"Aste bukaera guztietan agertzen da edo trafikoko seinale bat edo pibote bat apurtuta"**

**Idoia Laspita** > Oñatiko Udaltzainburua

**"Jaietako kalteak betikoak dira; aldiz, ikastetxeei aspaldian ez diete kalte larririk egin"**

**Alfonso Alonso** > Bergarako Udaltzainburua

DATUA

**5.000**

**EURO**

Arrasateko Udalak 5.000 euro daramatza gastatuta aurten herriko autobus markesinak aldatzen; horiek askotan apurtzen dituzte aste bukaeretan eta jaietan.



**NATURA** > AIZKORRI-ARATZ

# Arantzazuko parketxea urte amaierarako bukatu nahi dute

Aizkorri-Aratz parke naturaleko interpretazio zentroa izango da parketxea

Gandiaga topagunean egiten dihardute eta museologia objektuak egokitzea bakarrik falta da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI
Aizkorri-Aratz parke naturaleko sarbideetako bat da Arantzazu. Hori dela-eta, hara doazenei harrera egiteko zentroa eraikitzen dihardute Arantzazun, Gandiaga topagunean. Lanak, baina, atzeratu samar doaz; Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak esan du asmoa dela urte amaierarako amaituta egotea.

"Parketxea bera amaituta dago, obra zibila; orain falta da interpretazio gunea izango dena atontzea", azaldu du Idoiagak. Hau da, museologia objektuak jartzea.

**40 METRO KOADROKO MAKETA**
Interpretazio zentroak Aizkorri Aratz parkea ondo ezagutzeko balioko du. Ibilbide bat izango du, eta bideo eta maketen bitartez parke naturaleko txoko ezberdinak ikusiko dira.

"Maketa bat jarriko dute, 40 metro koadrokoa", dio Idoiagak. Gainera ukimen-pantailen bitartez Urbia, Iturrigorri... bisitatzeko aukera egongo da.

**FORU ALDUNDIAK FINANTZATU DU**
Oñatiko Udalak, frantziskotarren komunitateak eta Gipuzkoako Foru Adundiak Arantzazuko parketxea eraikitzeko lankidetza hitzarmena onartu zuten 2008an. Foru Aldundiak 1.000.000 euro jarri ditu lanok egiteko; frantziskotarren komunitateak Gandiaga topaguneko mendebaleko hegala utzi du; eta jendeari harrera egin eta proiektua dinamizatzeko gastuak Oñatiko Udalaren kontura izango dira. Urte amaieran amaitu, eta urtarril inguruan zabalduko dute.

**ZEGAMAN, AIZKORRIKO ATARIA**
Asteon inauguratu dute Zegaman, Anduetza baserrian, Aizkorriko Ataria interpretazio zentroa. Aizkorri-Aratz parkearen erakusleiho izan gura du interpretazio zentroak; parkea ikusteko, sentitzeko eta interpretatzeko beste modu bat. Horretareko, ikus-entzunezkoak jarri dituzte.



Gandiaga topagunean egokituko dute parketxea. A.E.

**JENDARTEA** > ELGETAN OMENALDIA

## 190 lagunek jasoko dituzte domekan urrezko eta zilarrezko odol emaileen sariak

Elgetan da hitzordua domekan, 13:30ean, Espaloia Kafe Antzokian; ondoren, bazkaria izango dute

**A.E.** > BERGARA
Ibarreko odol emaileen festa izango da domekan Elgetan. Festa baino gehiago izango da; izan ere, esker ona adieraziko zaie urtetan, borondatez, odola eman dutenei. Debagoieneko –Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza izan ezik–eta Debabarreneko odol emaileak elkartuko dira; guztira, 190 lagun.

**MEZA IZANGO DUTE LEHENENGO**
Eguerdiko hamabietan elkartuko dira omenduak Elgetako parrokian. Ondoren, 13:30ean, Espaloian intsigniak eta diplomak banatuko dituzte. "Banatuko dizkiete zilarrezko diplomak 25 odol emate egin dituztenei; eta urrezkoak 50 odol emate egin dituztenei", azaldu du Mari Asun Agirre antolatzaileetako batek. Esan behar da 40 odol emate egin dituzten emakumeek ere urrezko diploma jasoko dutela. Horiez gain, baina, odol emaile bikainak ere omenduko dituzte; hau da, 75 aldiz odola eman duten herritarrak.

Urrezko diplomak jasoko dituzte 60 lagunek, zilarrezkoak 113 lagunek eta berezia 17 lagunek. 17 lagun horietatik lau antzuolakoak dira, hiru Bergarakoak eta bat Oñatikoa.

**BAZKARIA ESPALOIAN**
14:30ean bazkaria izango dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Menua hau izango da: urdaiazpikoa, bakailao entsalada epela eta era askotariko frijituak, txekor matrailak saltsan, tarta izozkiarekin, kafea eta kopa.

Iaz ere Elgetan egin zuten odol emaileen festa. Giro bikainean pasa zuten eguna, eta aurten ere hori espero dute.


HAURREI MASAJEA EMATEN IRAKASTEKO IKASTAROA
0-1 urteko haurrak dituzten gurasoendako

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate, Prebentzio eta Laguntza Zentroa

TOKIA
Araba etorbidea 3
2-3.atea

EGUNAK
Azaroak 3, 10, 17 eta 24.

ORDUA
10:30etik 12:00etara.

INFORMAZIOA
MUGI ZENTROAN
943 77 08 05
ARRASATE

• LASAITZEKO
• HOBETO LO EGITEKO
• KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
• UMEAREN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
• INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ARRASATEN
COMPRO ORO
Bitxiak, lingoteak, dominak, txanponak, erlojuak, belarritakoak
PIEZA SOLTE EDO APURTUAK
TASATZE ALTUENA.
EDOZEIN ESKAINTZA GAINDITZEN DUGU
ORDAINKETA, MOMENTUAN
Zerkaosteta 15. Arrasate

> ERRETIRATUAK

### Pentsiodunek protesta egingo dute urriaren 29an

Espainiako Gobernuak pentsioen aurrean duen politika salatzeko manifestazio deitu dute Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunek urriaren 29rako. Donostian izango da, Bulebarreko kioskotik irtenda, 11:00etan.

Pentsiodunen gehiengoa premia gorrian bizi dela diote; are gehiago, emakumeak eta alargunak. Bizitza duina ziurtatzeko 1.022 eurotik gorako hileroko soldata eskatzen dute, besteak beste.

> ENPRESA

### Berrikuntzaren kudeaketaren gainean jardungo dute Garaian

Oinarrizko kontzeptuak dagoeneko jaso dituzten enpresei zuzenduta dago ikastaroa. Azaroaren 12an, 19an eta 26an izango da; eta egingo dutena izango da Innoways programa sakon landu.

Azaroaren 12an berrikuntzaren antolaketa landuko dute; azaroaren 19an, berrikuntzaren kulturaz jardungo dute; eta azaroaren 26an, etorkizuna izango dute berbagai Garaian.

> HEZKUNTZA

### Baketik-ek irakasleei zuzendutako ikastaroa emango du

Datorren urriaren 29an eta 30ean Baketik-ek irakasleei zuzendutako ikastaroa eskainiko du: *Bizikasi pedagogia hezkuntzan eta eskolan*. Modu horretan, gurasoen eta irakasleen eskola jarriko dute martxan Arantzazun.

Ikastaroa izango da egubakoitzean 17:00etatik 20:30era eta zapatuan 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara. Matrikula 60 euro da. Informazio gehiago: *www.baketik.org*.

> HITZALDIA

### Juan Mari Uriarte gotzain ohia Arantzazun izango da

Bihar Asisko espirituaren eguna ospatuko dute Arantzazun. Horren harira, Juan Mari Uriarte gotzain emerituak hitzaldia egingo du. *Berradiskidetzea, bakearen arima* gaiaz jardungo du. Frantziskotarren anaidiak gonbidatuta etorriko da Uriarte.

1986an Joan Paulo II.a aita santuak erlijio arteko topaketa deitu zuen Asisen. Ordutik hona, mundu osoan ospatzen da Asisko eguna, urrian.



Irudian, *'Malko gorriak* izeneko dokumentala grabatzen, joan den maiatzean, Arrasaten. ARTEMAN

**OROIMEN HISTORIKOA** > ESPAINIAKO GERRA

# Gerran fusilatutako 122 debagoiendarrak gogorarazi zituzten atzo

Aretxabaletan ekitaldi hunkigarria egin zuten arratsaldean; aurretik agerraldia egin zuten Lau Haizetara Gogoan batzordekoek Arrasaten

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Atzo, eguena, 74 urte bete ziren 19 debagoiendar zibil fusilatuak izan zirela Hernaniko kanposantuaren ondoan; guztira, 200 herritar inguru fusilatu zituzten han. Hori dela-eta, eta *Izarren argia* Oroimenaren Autobusa Aretxabaletan geldiunea egin behar zuela aprobetxatuta, Lau Haizetara Gogoan Debagoieneko Fusilatuen Senitarteko eta Lagunen batzordeak ekitaldi hunkigarria egin zuen arratsaldean Aretxabaletako Durana kalean.

Ordu erdi inguru iraun zuen ekitaldiak. Txalapartaren hotsarekin batera, fusilatu bakoitzaren izenarekin izar marka duen pegatina bana jarri zuten senitartekoek eta lagunek Oroimenaren Autobusaren kanpoaldean; esan bezala, 122 izar, hain justu.

Frankismoak hildako herritarrei omen egiten dien *Izarren argia* filmaren harira, memoria historikoa berreskuratzeko helburua duen autobusa jarri zuten martxan joan den zapatuan Ondarroan. Azaroaren 6ra arte memoria historikoarekin zerikusia duten Euskal Herriko herri esanguratsuenetatik igaroko da, eta horietako fusilatuen izenak jaso.

DATUA

**74**

**URTE**

Atzo, 74 urte bete ziren 19 debagoiendar fusilatuak izan zirela Hernaniko kanposantuan. Arrasatetik Ondarretako espetxera eraman zituzten, auziperatu gabe, libre utzi, eta gero, erail zituzten.

### AURRESKUA

Autobusean izar guztiak jarri ostean, aurreskua dantzatu zuten eta jarraian Lau Haizetara Gogoan batzordekoek hartu zuten hitza. Altxamendu faxistaren biktimekin gertatutakoa argitu gabeko auzia dela gogorarazi zuten, eta horren harira dagoen "zigorgabetasuna" salatu.

### GAURTIK ZINEMETAN

Ekitaldia amaitu aurretik, Baleukok ekoiztutako *Izarren argia* dokumentalaren gainean labur egin zuen berba Lorea Elso koordinatzaileak. Azaldu zuen Donostiako zinemaldian aurkeztutako filma frankismoan Saturrarango espetxean preso egon ziren emakumeei buruzkoa dela. Horrekin batera, gaineratu zuen gaur, egubakoitza, estreinatuko dela ofizialki filma zinemetan.

### AGERRALDIA ARRASATEN

Bestalde, Aretxabaletako ekitaldiaren aurretik agerraldia egin zuten atzo Arrasateko Laubide plazan Lau Haizetara Gogoan batzordekoek. Besteak beste, oroimen historikoa "osotasunean" egin behar dela azpimarratu zuten. Batzordeko kide Julia Mongeren esanetan: "Egia ezagutzea, hori lehen pausoa izango litzateke justizia egiteko, errudunak epaitzeko, kaltearen ordaina emateko, berriro halakorik ez gertatzea bermatzeko".

ESANAK

## "Egia ezagutzea lehen pausoa litzateke justizia egiteko, errudunak epaitzeko eta ordaina emateko"

**Julia Monge** > Lau Haizetara Gogoan batzordeko kidea

DOKUMENTALA

## 'Malko gorriak' aurkeztu zuten iluntzean

Oroimen historikoaren harira beste ekimen bat egon zen atzo iluntzean Aretxabaletan: 19:30ean, Intxorta 1937 kultura elkarteak egindako eta Arteman Komunikazioak enpresak ekoiztutako *Malko gorriak. Gerra zibila Aretxabaletan* dokumentala aurkeztu zuten. Lanaren gidoilari Jose Ramon Intxauspek horren gaineko hainbat azalpen eman ostean, 35 minutu irauten duen dokumentala ikusi zuten Arkupeko Zaraia aretoan batu zirenek. Emanaldiaren ostean, dokumentala eskuratzeko aukera izan zen han bertan, 12 euroren truke.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
URRIKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.


ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA
Bidali KLUBA KAMISETA [bazkide zenbakia] 5195 zkra


DANBAKAKO PACKA
Bidali KLUBA DANBAKA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.


UMEENTZAKO LIBURUA
Bidali KLUBA LIBURUA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.


SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA
Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 76 51 95


SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*



zabalik

Eneida Iturbe

# Sortu, elkarbanatu

Zenbait eztabaidatan gaitza da dena zuri edo beltz ikustea, teknologia berrien eta Interneten gainekoan, esaterako. Sarea munduari begiratzeko leihoa izan daiteke, baina beti ere ingurukoei atea itxi gabe; hau da, ondoan ditugunekin harremana galdu gabe.

Egungo umeek telebista aparailuaren ondoan arratoiaren falta sumatzen dute, ez baitute interaktiboa ez den pantaila bat ulertzen. Entzun eta ikusi baino gehiago, parte hartu egin nahi dute. Horra hor Interneten potentziala: parte-hartzea, elkarbanatzea eta denon artean lan egitea errazten duela.

Urriaren 15ean Blog Action Day edo Blogarien Ekintza Eguna ospatzen da. Blogariek gai sozial bat aukeratzen dute urtero eta egun hori gizartea sentsibilizatzeko eta eztabaida sortzeko erabiltzen dute. Aurten 143 herrialdetako 5.700 blogarik Hegoaldeko herrialdeetako biztanle askok eta askok edateko ura eskuratzeko dituzten arazoak salatu nahi izan dituzte. Ekintza honen oihartzuna ez da nolanahikoa izan, 40 milioi irakurle baino gehiago lortu baitituzte. Mugak gainditzen dituen talde-lanaren adibide bat besterik ez da hau.

**"Gure esku dago ezagutza sortu eta elkarbanatzeko sare librea lortzea"**

Urte batzuk barru hezkuntzarik onena Internetek eskainiko duela diote askok. Hala ere, umeek eta gaztetxoek beti beharko dute maistru-maistren eta gurasoen laguntza. Horiek izan beharko dute sarearen kaosean beren gida, eduki egokienak bilatze aldera.

Etorkizuna interaktiboa izango da, beraz. Gure esku dago, baina, ezagutza sortu eta elkarbanatzeko sare librea lortzea. Web 2.0 edo web soziala denbora-pasa baino gehiago izan daiteke, horretarako espiritu kritikoa eta sorkuntza kolektiboa bultzatu behar ditugu eta lizentzia askeen alde egin.

usteak uste

Mirari Altube

# Egin dezatela kirola, bai, baina...

Adituek aholkatzen dute umetan sortu behar dela kirolerako ohitura. Kirol bakarra egin beharrean zergatik ez ezagutarazi bi, hiru edo lau? Horixe pentsatu du Aldundiak eta kirol bakarrean izena emandakoak –futbol eskola, saskibaloi eskola…– derrigortu eskola kirolean jardutera. Astean bi egunetan eskola kirola dute umeek eta beste baten gainerako kirola; eskola orduetatik kanpo, noski. Eta musika, ingelesa, pintura… eta etxerako lanak ere egin behar dira, ezta? A, eta bien bitartean heziketa fisikoari dagozkion orduak –eskola orduetan– murrizten dabiltza.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# Espainia eta Frantziaren arteko oliobiderik eza

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

Zer gerta ere kontua da Espainia estatu isolatu samarra dela energia-azpiegituraz. Argindar-sarea –Frantziako zentral nuklearren elektrizitatea eskaintzen diguna– urria da, petroliohodirik ez dago bat bera ere, eta gas-hodia da salbuespen bakarra, euskal interesen mesedetan.

Frantziako findegiak egunotan izaten ari diren zerbitzu-eragozpenak direla eta, hainbat komunikabidek galdetzen du findegi espainiarrek gasolina zerbitzen ote diharduten. Galderari ez zaio segurutik logikarik falta, baina bai, behar bada, oinarri-oinarrizko informaziorik, ez baitago gaur-gaurkoz Espainia eta Frantziaren arteko batere oliobiderik.

Izan ere, Espainia eta Frantziaren arteko energia-azpiegitura elkartua ezer gutxi dago garatua. Arrazoiak hainbat dira. Batetik, Frantzia betidanik egon izan da ipar Europara begira. Bestetik, Espainiaren hainbat urtetako autarkiak ondorio latzak izan ditu.

[...]

Duela 30 urte arte, Euskal Autonomia Erkidegoa Aljeriatik Espainia barrena zetorren gasaren azken muturra zen, frantsesez "cul-de-sac" esaten dutena, hau da zerbitzua segurtatzeko geoestrategiaz azkena. Euskal Energia Erakundeak azken hiru hamarkadotan eragindako egitasmoaren ondotik, berriz, Euskadi nolabaiteko trianguluaren ardatzean kokatu da egun. Mendebaldetik, Trinidad-Tobagotik Zierbenaraino itsasontziz iristen den gas likidoa; hegoaldetik, Ebro sakanean zehar datorren gas aljeriarra; eta iparralderantza, berriz, Euskadour sarea, Akitaniarekin lotzen gaituena.

Petrolio-merkatuan ez dago, ordea, gas-sarearen parekorik. Ez Euskal Herrian, ez Espainian zein Frantzian, ezta Europa guztian ere. Laburbilduz, onerako zein txarrerako, ez dago penintsulako eta kontinenteko findegien arteko loturarik.

koplak

Andere Arriolabengoa

# Iritsi da negua

Jeitsi da tenperatura eta
ilundu zaigu zerua,
uda hasi orduko iritsi
da berriz ere negua.

Udaberria ta udazkena
izaten ditugu lotan,
bi urtaro bakarrik ditugu
ta gure herri zahar hontan.

Eguzkiaren berotasuna
argitasuna ahaztu,
etxetik gauez irtetzen gara
ta berriz gauez bueltatu.

Hezurretarainoko dardara
jasotzen dugu hotzetik,
hondartza aldatu /
beharko da
berogailuarengatik.

Hotzak dituen bentajak ere
beharko aprobetxatu,
ondoan dena ondo heldu ta
gaua berotan pasatu.

Ondoren damutzea alperra
aurreikustea hobe da,
txamarra ta aterkirik gabe
ez zaitez irten kalera.

**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienka2a eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Elbarriendako busak

**Aritz Bikuña**
Bergara

Hiriburuetara PESAko autobusetan joan nahi izanez gero eta elbarria bazara, aldez aurretik deitu behar duzu eta eskatu. Eta ez zait bidezkoa iruditzen, zerbitzu publikoa den heinean. Iruditzen zait ez litzatekeela eskatu beharrik izan beharko eta bus guztiek elbarriendako prestatuta egon beharko luketela.

# Joxe Arregi teologoa Ipintzan

**Aitor Arruti eta Pello Lezertua**
(Ipintza institutua)
Bergara

Joan den iraileko 28an eta 30ean Ipintza ikastetxean izan genuen Joxe Arregi teologoa, Pello Lezertua irakasleak Literatura Unibertsala ikasgaiko bi ikastordutarako gonbidatuta. Zerrendako lehen gaietako bat Biblia da, eta hari buruzko azalpenak eman zituen Joxek lehen saioan. Bigarrenean, aldiz, ikasleen galderak erantzun zituen bi orduz.

Ikasleek idatziz jaso zuten bi saioei buruzko iritzia, eta oso positiboa izan dela nabarmendu beharra dago. Gehien-gehienek benetan balio handikotzat jo dute Joxe ezagutzeko aukera izana. Oro har, jakintsu bat ezagutu dugula uste dugu gainontzekook ere, eta, beretzako une zailak diren hauetan, gure babesa eskaini nahi diogu lerro hauen bitartez.

Eskerrik asko, Joxe, eta nahi duzun arte.

# Gorrotoa erdarari

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Lege bortitza dugu jasaiten oraindik orain euskaldunok, ulertezina egiten baitzaigu euskara ez maitatzea.

Espainiar herri arrotzaren konstituzioak bai dio, gaztelera behartua izango da ikastera jakitera menperatzera. Espainiartzat gauzkate; horrenbestez, beren legea gurekiko ere aplikatu nahi dute.

Guk euskaldunok apal-apal daramagu Euskal Herrian euskara mintzatzen milaka urte eta ez dugu izan beste arrotz hizkuntzaren jabetasunik, ez baitzitzaigun premiarik, komunikabideak baitziren eskasak are antzinago.

Gaur egungo euskaldunak badu nazioartean mugitzeko beharra; beraz, ingelesa ematen baitiegu horretarako gure ikastetxeetan haur eta gaztetxoei.

Baina behartu gaztelera legez, de fakto, ezarpenez, hego Euskal Herriko txoko guztietan? Zergatik? Izan ere, nahi ez duen ikastetxeak zergatik ez eman denbora oso gutxi gaztelerari edo agian ezer ez, oinarrituz ikasketak euskaran eta bigarrenez ingelesean.

Gaztelera soilik eskubide bat balitz euskara den bezala. Bada, nahi lukeenak ez luke zertan ikasi beharko edo erakutsiko umeei. Hots, legea aldatu beharra dago, lehenbailehen, gainera, PSE-PP gogoz baitaude behartzera gaztelera gehiago ikastetxeetan.

Edozelan ere, apalak izan behar dugu abertzaleok, zeren konstituzio euskalduna nahi baitugu, bai, baina ze estatu independente nahi dugu sortu? Hemendik gutxira Euskadirena? Hau da, Euskadi da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, ala Hego Euskal Herriarena hemendik 200 edo 300 urtera, ahalik eta nafarrak abertzale bihurtzen diren arte?

Premia zaizkigu euskaldunoi hizkuntz lege berriak, egin dezagun, bada, autodeterminazioa Euskadin, ikus dezagun zer gertatzen den Arabarekin.

Bada, edonola ez dugu jasaiten gehiago behartu gaitzaten gaztelerara, nik erdara gorrotatzen baitut, eta zuk?

# Domingo Iturbe fundazioa

**Iñaki Egizabal**
Elgeta

Azken asteotan Domingo Iturbe fundazioari buruzko "informazioa" irakurri dut zenbait komunikabidetan; baita GOIENKARIAn ere. Informatu baino gehiago nahastu egiten dute. Hainbeste eta hainbeste lerro idatzi dira, aurrez informazio zuzenik jaso gabe:

-"Fundazioa" eta "Patronatua" hitzak sinonimo modura erabiltzen dira eta ez da horrela: "Fundazioa" Domingo Iturbe jaunak sortutako erakundea da. Fundazio honen helburua haur eta gazteen giza eta kristau hezkuntza bultzatzea da (Estatutuen 3. artikulua).

"Patronatua", berriz, fundazioaren jabetza da (9. artikulua).

-Joan zen asteko GOIENKARIAk dio: "Patronatuaren fundazioa hiru aldek osatzen dute: Elgetako Udalak, Gotzaindegiak eta parrokiako gurasoek". Esaldi honek ez du zentzurik: Fundazioaren buru eta jabea bat bakarra da: Donostiako Elizbarrutiko gotzaina, edo honek aukeratutako delegatua (10. artikulua); beraz, bere gain dago fundazioaren patronatua. Patronatuak, gainera, badu bere Aholku Kontseilua, ondorengo kideez osatua: Elgetako parrokoa, Elgetako Udaleko ordezkari bat (Patronatuak onartua) eta Elgetako 2 herritar, Patronatuak aukeratuak (hauetako bat Herri Eskolako haurren baten gurasoa) (11. artikulua).

-GOIENKARIAk pixka bat aurrerago dio: "Parrokiako gurasoek begi honez ikusten dute Udalaren asmoa". Ez dakit zer iritzi izango duten parrokiako gurasoek, ez dut uste galdetu zaienik; baina, dena dela, ez du garrantzirik: parrokiako gurasoak ez dira Aholku Kontseiluko kide ere.

Norbaitek Domingo Iturbe fundazioari buruzko informazioa nahi balu (edo Estatutuak irakurri), ez dauka Elgetako parrokian eskatu besterik.

Azkenik, Udalak Fundazioaren eraikin eta lurrekin duen asmoa ez da txarra, baina gauzak ez ditu egin modu egokian: ez da normala norberarena ez den eraikinean proiektua eginda eta dirulaguntzak eskatuta eta jasota edukitzea, jabearekin hitz egiten hasi aurretik. Espero dut Gotzaindegiarekin akordio batera heltzea Elgetako Udala, baina horrela gertatuko ez balitz, zer? Berriz ere Eliza errudun?

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Ibarra kalea 6**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
*altu-lasa@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Ekainaren 27an bete zituen ofizialki Goienak 10 urte, baina hiru aste barru ospatuko du kolaboratzaile, bazkide eta laguntzaileekin, Amaia antzokian, Arrasaten. Horrekin batera, Goienaren irudi berria aurkeztuko du Goienak, eta etorkizunerako asmo berriak azaldu. "Ziklo berri bati hasiera emateko", Estepan Plazaola lehendakariak dioen moduan.

**Estepan Plazaola** > Goienako lehendakaria

# "Goienako bazkide eta kolaboratzaileen lana aitortu eta eskertu gura dugu"

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak 10 urte bete ditu aurten. Azaroaren 11n kolaboratzaile eta laguntzaileekin ospatuko du Arrasaten. Estepan Plazaola (Arrasate, 1961) Goienako lehendakariarekin izan gara.**



Estepan Plazaola, Goienako lehendakaria. ENEKO AZKARATE

**10 urte bete berri ditu Goienak aurten eta hori ospatzeko ekitaldia egingo duzue, ezta?**

Bai, azaroaren 11n izango da, Arrasateko Amaia antzokian. Ekitaldia izango da modu bat aitortzeko urte hauetan guztietan Goienaren kolaboratzaile izan direnen lana, eta haiekin batera ospatzeko: herritar, merkatari, udal, elkarte, talde, bestelako erakunde publiko... Bestalde, hurrengo epealdirako, indarberrituta eta irudi berrituta irteteko. Esker on ekitaldi bat da berez, baina hurrengo urteotarako asmo berriak ere ezagutzera emango ditugu.

**Goienako hedabideak berrituta etorriko zaizkigu, hortaz?**

Bai, eduki zein irudi aldetik eraberrituta etorriko zaigu Goiena. Irudi korporatiboa aldatzeaz gain, aldaketak egingo ditugu hedabide guztietan. Horrekin, ziklo berri baten hasiera islatu gurako genuke.

**Zein izan da Goienaren ekarpen nagusia Debagoienarendako?**

Era askotakoak izan dira ekarpenak. Edozein komunikazio talderen ekarpen nagusia komunikatzea da eta, gure kasuan, euskaraz komunikatzea herritarrei. Informazioa, iritzia, aisialdia, zerbitzu informazioa, entretenimendua... hori guztia euskaraz. Bailarako euskarazko hedabide gisa beste helburu batzuk ere bete ditu Goienak: besteak beste, kultura eragile izatea. Aintzat hartzekoa da, esaterako, *Kantari*-ren ekarpena: ehunka umek euskaraz kantatzen eta dantzan jartzea; edo Danbaka bera, eskualdeko musika taldeendako plataforma bikaina. Era berean, hedabideez aparteko beste arlo batzuetan ere hizkuntza normalizatzeko eragile izan da.Esaterako, hasieran, zenbait dendarik publizitatea euskaraz egitea maila sinbolikoan baino ez zuten ikusten, laguntza gisa. Denborarekin erakutsi dugu euskarazko gure hedabideei aitortzen zaiela berez duten funtzioa: publizitaterako bide eraginkorra izatea.

**Bailara kohesionatzeko ere balio izan du, ala?**

Nik uste dut baietz. Gaur herrietatik aparte, bailarak berak badauka funtzio bat eta horretan Goienak lagundu du. Goiena bera ere bada erreferente gure eskualdetik kanpo eta horrek eman dio izena kanpoan bailarari.

**Ze nabarmenduko zenuke, bereziki, hamar urte hauetatik?**

Batetik, azkeneko urteotako hedabideen uholdea. Lehen zortzi telebista kate bazeuden, orain kableari, sateliteari edo Lurreko Telebista Digitalari esker, ehunka dira; Internet erabat zabaldu eta erreferentziazko bihurtu da... Horrek hedabide txikioi zailtasunak sortu dizkigu, askoz ere gehiagorekin lehiatu beharra, eta ekarri du zenbait tokitan hedabide txikiak bertan behera geratu izana. Guk, denok batu izanagatik edo bazkide, kolaboratzaile eta erakunde publikoak gertuan izan ditugulako, zailtasunei aurre egin ahal izan diegu.

DEBAGOIENA

**"Gaur egun, bailarak berak badauka funtzio bat eta horretan Goienak lagundu du"**

TEKNOLOGIA BERRIAK

**"Egokitzeko eta puntaren puntan egoteko gaitasuna eduki behar dugu"**

ETORKIZUNA

**"Gure etorkizuna egonkortzeko egoitza batean inbertitzea beharrezkoa dugu"**

**Etorkizunari begira, zeintzuk dira Goienaren erronkak?**

Apustuak nagusiki hiru arlotan ikusten ditut: batetik, partaidetza, elkarlana, zabaltzea beste arlo batzuetara eta egituratzea gehiago, esate baterako, Goiena Klubaren inguruan: herritarrak gure bazkide edo laguntzaile bihurtzea eta haien parte-hartzea handitzea; bigarren: teknologia berriak. Egokitzeko eta puntaren puntan egoteko gaitasuna edukitzea beharrezkoa da; azkenik, bereziki nabarmenduko nuke gazteen alorra, hau da, gazteengana heltzea eta hauekin bat egitea. Gazteekin eta gazteendako. Kultura eta hizkuntza eragile izaten jarraitzea ere inportantea da.

**Paperak geroago eta eragin ahalmen txikiagoa eta irakurle gutxiago ditu...**

Prentsa izan da eta da gure euskarri nagusia, jende gehienarengana heltzen delako, eta zenbait urtean hala izango da, baina argi dago joera dela teknologia berriak gehiago erabiltzea, eta, horien artean, Internet. Goienak norabide hori hartu du, papera baztertu barik. *Goiena.net*-ek gorakada handia izan du azkeneko urteotan.

**Eta GOITBk arrakastaz egin dio aurre digitalizazioari?**

Esfortzu handia eskatu digu herri guztietara iristeko seinalea. Gainera, tokiko hedabideen artean, oraingoz, bakarrik geu gaude LTDean bailaran.

**Goienaren beste helburu edo erronketako bat da egoitza bakarrean batzea, ezta?**

Premiazkoa da. Gaurko hedabideen funtzionamenduak eskatzen ditu erredakzio bakarrak, bateratuak, multimediak. Bestalde, gaur dauzkagun zenbait egoitzatan behin behineko egoeran gaude eta horrek gastu gehigarriak eta gure lana egoki egiteko zailtasuna sortzen digu. Etorkizuna egonkortzeko egoitza baten inbertitzea estrategikoa da.


Kutxa Auto
Asegurua
Hemen, erabateko ezbeharrak,
sute edo lapurretak esan nahi du
Auto berriaren balioaren
%100 bi urte igaro arte
> %60rainoko hobaria gidari ona izateagatik.
> Bidaian laguntza 0 km-tik, 24 orduetan, 365 egunetan.
> Kristal-apurtze, lapurreta edo suteagatiko parteek ez dute frankiziarik ordainduko, ezta hobariari eragingo ere.
> Eta hasteko, Esku Libreko bat opari duzula abiatuko zara.
Informa zaitez eta kalkulatu zeure prima kutxaren edozein bulegotan.
kutxa
zugandik zugana
* Kutxa Auto Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.ren produktu bat da. Kutxa, Biharko Vida y Pensiones-en banku/aseguruetako operadore esklusiboa da. Haren baimena dauka Biharko Aseguradora-rekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago C0654G20336251 zenbakiarekin. Aseguru honetan bitartekari-lanak egiten ditu Biharko Aseguradora-ren eta Liberty Seguros-en artean izenpetutako banaketa-akordioaren testuinguruan.



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
*www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.com*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.**

# Jatetxe Gida



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**



Kalitate turistikoa

## Zumelaga jatetxea

San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21
*www.zumelaga.com*

**Eskaintza**
- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu berezia
- Elbarriendako sarrera eta irteera egokituak

**Igande eguerdietan zabalik**
eta astelehenetan itxita

**Arrasate** > 12-15 **Bergara** > 16-19 **Oñati** > 20-21 **Aretxabaleta** > 22-23
**Eskoriatza** > 24 **Antzuola** > 25 **Aramaio** > 26 **Elgeta** > 27 **Gatzaga** > 27



**> ARRASATE** 'Arrasate ezagutzen' sortako liburu berriak, aurkeztuta **> 13**



**> ARETXABALETA** Gastronomia eta folklore jaia egingo dute etzi Herriko Plazan **> 22**



**> ESKORIATZA** Herrian izan diren Mesedetako mojen omenezko bazkaria etzi **> 24**



**> ANTZUOLA** Armarriaren gaineko parte-hartze prozesua aurkeztu dute **> 25**



Bergarako eskolan hasi berri diren erretiratuak eta Arrasaten ikasturtea bukatu berri dutenak. LEIRE KORTABARRIA

**BERGARA** > JENDARTEA

# Ikasgelara itzuli dira herriko 32 erretiratu, Esperientzia Eskolan

**LEHENENGOA** Arrasaten hirugarren ikasturtea du eskola horrek; Bergaran aurten hasi da

**IKASTURTEA** Sei hilabetean hainbat gai ikasten dute eta azken hiruretan, proiektu bat egin

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA
Eguaztena ezkero, 50 urtetik gorako 32 bergarar dabiltza Esperientzia Eskolan, eta eurak izango dira lehenengo promozioa. Bergarakoa Debagoieneko bigarren Esperientzia Eskola da; Arrasatekoak hirugarren ikasturtea du. Martitzen eguerdian, Miguel Altuna ikastetxeko areto nagusia –han ematen dituzte eskolak– bete egin zen Eskola aurkezteko eta Arrasaten ikasi dutenei diplomak banatzeko.

Esperientzia Eskola Donostiako Matia Fundazioak sortu zuen, 1998an hasitako proiektu baten ondorioz. Eskola 2000n jarri zen martxan Donostian, eta ondorengo urteotan, beste 12 eskola Gipuzkoako beste hainbeste herritan; Arrasatekoa 11.a izan zen, eta Bergarakoa, 12.a.

**JENDARTEARI BEGIRA**

Esperientzia Eskola etxetik kanpoko lan aktibitatea bukatuta duten 50 urtetik gorako gizon-emakumeei zuzenduta dago. Lehenengo sei hilabeteetan, eskola formazioa jasotzen dute, eta, azken hiruretan, proiektu bat egiten dute. Aurkezpenean hizlari izan zen Mugabe elkarteko ordezkari Arantza Arrietak honela esan zuen: "Erretiratuok prestakuntza iraunkorra jasotzeko modu bat da; izan ere, jendarteko parte izan nahi dugu. Asko dugu emateko, baina hartzeko ere bai". Gogorarazi zuen jendartean eta kulturan jarduteak "autoestimuari eta osasun psikikoari" laguntzen diola.

Ikasturte bakarra egiten da eta, bertan, denetariko gaiak lantzen dituzte ikasleek; normalean, aurretik ikasteko aukera izan ez dituzten gaiak izaten dira, baina baita eguneko kontuak, albiste direnak, euren kezkak… Proiektuari dagokionez, Arrietak adibide batzuk eman ditu: "Goierrin, adibidez, baserriko jendea nola bizi den oinarri hartuta, bakarrik bizi diren asko daudela ikusi zuten, eta haiek hobeto bizi izateko proposamen batzuk batu zituzten; beste proiektu baten, etorkinendako liburuxka batzuk egin zituzten, hitz lagungarriekin… Azken baten, gizarteari begira egiten diren proiektuak dira; gizarteari falta zaizkion gauzak ikusi eta horretan zelan lagun dezaketen ikusten dute".

**LAGUNTZAILEAK**

Eskolaren berri eman zuten ere Agurne Barruso alkateak eta Miguel Altuna ikastetxe kolaboratzaileko zuzendari Iñaki Larrañagak. Biok "pozik" agertu ziren Bergarako erretiratuek Esperientzia Eskolari emandako erantzunarekin.

Alkateak zoriondu egin zituen aurreko ikasturtea bukatu zutenak, eta eskerrak eman zizkion Miguel Altuna ikastetxeari, proiektu horretan eta herriko beste askotan erakutsi duen "inplikazioarengatik". Eskolaren gainean, hauxe esan zuen: "Erretiratuak gero eta sasoikoagoak eta gazteagoak dira, emateko asko dute, eta lehendik hausnarketa eginda geneukan Udalean hori guztia zelan bideratu. Esperientziaren Eskolaren proposamena jaso genuenean, ez genuen inongo dudarik izan; bete-betean egiten zuen bat guk pentsatzen genuenarekin". Gaineratu zuenez, "baliabideak ez dira mugagabeak", baina Udalaren borondatea da "Esperientzia Eskolaren bidelagun" izaten jarraitzea etorkizunean.

IKASLE OHIA

## "Uste izaten dugu lanbideko gauzak bakarrik dakizkigula, eta ez da horrela"

Miguel Altunako areto nagusi erdia Arrasateko Esperientzia Eskolan ikasturtea iaz bukatu zutenek hartu zuten; ikasle ohiak, hortaz. Ikasle izandako gonbidatu berezi bat ere izan zen: Ibon Bolinaga arrasatearra. Hura zelan ibili den kontatu zuen modu xalo eta berezkoan: "Jendea animatu gura dut, oso ondo pasatzen delako", esan zuen. "Gauza berri asko" ikasten direla esan zuen, baina ez bakarrik ikasgelan: "Kafe orduan ere bai; kontu asko hortxe irteten dira", azpimarratu zuen. Publikoaren gehiengoa emakumeak zirela-eta, keinu bat egin zien: "Emakume oso jatorrak egoten dira", esan zuen, eta jendearen barreak piztu.

Bolinagak ondoko gogoeta ere egin zuen: "Pentsatzen dugu nork bere lanbideko gauzak bakarrik dakizkiela; baina eskolan konturatu ginen gauza asko dakizkigula, eta jende artean gehiago ikasten ditugula. Proiektua egiterakoan ere balio handiko gauzak irteten dira". Era berean, "giro oso polita eta parte-hartze handia" nabarmendu zituen.



Ibon Bolinaga. L.K.

**POLITIKA** > INO GALPARSORO ALKATEARI ELKARRIZKETA

# "Ez dut uste ni izango naizenik datozen hauteskundeetarako aukera"

## Udalaren egoera ekonomikoa "horren txarra" ez izan arren, diru sarrera murrizketa handia izan dute

## Udalen legearen faltan, Udalak bere gain hartzen ditu Jaurlaritza edo Aldundiaren gastu asko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

"Legealdi oso gogorra izan da. Udaletxera sartu ginenean alderdien arteko harreman oso eskasa zegoen, egoera politikoa… gutxieneko nabarmenean gobernatu izana oso gogorra izan da. Baina esango nuke aurrera egitea lortu dugula, konforme gaude orain arte lortu dugunarekin".

Hala baloratu du Ino Galparsoro alkateak agintaldian Udal Gobernuak orain arte egindako lana. GOITBn egindako elkarrizketan gaineratu zuen agintaldia bukatu arte (maiatza) "denbora gutxi" geratzen dela eta "gauza asko" egin nahi dituztela. "Estresatu samar gaude", adierazi zuen Arrasateko alkateak.

Hala ere, badituzte lan batzuk aurreikusita agintaldia bukatu aurretik egin gura dituztenak. Hori bai, diruaren menpe egongo dira: "EPAren instalazio berriak, erdigunean gazteendako topagunea… Lehentasunak diruak markatu behar ditu, zoritxarrez. Diru kopuru inportanterik ez dakarten proiektuek eta denon onerako izan daitezkeenek izango dute lehentasuna".

### DIRU SARRERAK %25 BEHERA

Dena den, eta ekonomia kontuetan sartuta, Galparsorok azpimarratu zuen Arrasateko Udalaren egoera ez dela "horren txarra", "zorpetze maila nahiko baxua" delako eta "nahiko saneatuta" dagoelako.

Baina, era berean, gehitu zuen diru sarreretan %25eko murrizketa izan dutela: "Aldunditik jasotzen duguna (Udalaren diruaren herena): datorren urterako iragarri dute 2007an jaso genuenaren bestekoa. Bestalde, 2008an eta 2009an bueltatu egin beharko ditugu bost milioi euro… Horri gehitu behar zaio orain arte Udalak zuzeneko zergetan eta eraikin eta etxebizitzen zergetan diru kopuru inportanteak jaso dituela eta orain ia zero dela. Diru sarrerak %25 inguru murriztu dira".

### 500.000 EURO LAGUNTZETAN

Horri gehitu behar zaio Udalaren gastua: urteotan Arrasaten "bikoiztu" egin da larrialdi zerbitzuetara laguntza eske jo duten herritarren kopurua (langabeak, adibidez). Eta nahiz eta halakoei aurre egitea Jaurlaritzaren lana izan, udal legearen faltan Arrasateko Udalak bere gain hartzen ditu. Hori izan da Udalaren apustuetako bat: "Arrasate pasa da 500 langabe izatetik 1.500era; orain 1.200 daude. Jaurlaritzak egiten duena da partida bat sortu eta bukatzen denean ez dago gehiago. Guk 500.000 euro inguru gastatuko ditugu laguntzetan, eta erdia ere ez du finantzatuko Eusko Jaurlaritzak. Hori izan da Udalak hartu duen erabaki bat: nahiz eta Jaurlaritzatik dirulaguntzarik ez jaso, egoera horiek babesten jarraitu behar dugu".

### ITURBIDEN BESTE MILIOI ERDI

Ildo horretan, Galparsorok azpimarratu gura izan du Gizarte Zerbitzuen legea 2005ean onartu arren, hura ez aplikatzeak bestelako gastuak ere eragiten dizkiela. Iturbide egoitzan, adibidez, "urtean milioi erdi euro inguru" joaten zaio Udalari, berez Aldundiak ordaindu beharko zukeena.

### LAPURRETAK, GORA

Ekonomia kontuak albo batera lagata, bestelakoen artean, Arrasaten urteotan ugaritu egin diren lapurreta kopuruarengatik ere galdetu zioten Arrasateko alkateari. Hark onartu egin zuen lapurreta kopurua gehitu izana "datu objektibo" moduan. Baina azpimarratu zuen "Arrasaten ez direla beste lekuetan baino gehiago gehitu".

Alkatearen esanetan, "gaur egungo gizartearen adierazle" dira lapurretok, eta oraindik ez dakite "oso ondo zela egin aurre". "Udalaren neurriak dira bere bitartekoak eskura ipini (udaltzainak, bereziki), baina horrek muga nabarmenak ditu. Kasu konkretuetan Ertzaintzarekin batera egiten dira atestatuak eta gero eurek egiten dituzte gaien ikerketa inportanteena" gehitu du alkateak.

### APARKALEKU ARAZOA DELA-ETA

Bestalde, Arrasaten dagoen aparkaleku arazoaren gainean galdetuta, alkateak aditzera eman zuen Arrasateko "aparkatzeko joerak bukaera izan behar" duela, gai horri "buelta batzuk" ematen dabiltzala esan zuen, eta uste duela "soluziobide bat aurkezteko aukera izango dutela", baina, ez zuen ezer aurreratu.

Hori bai, esan zuen ez dagoela "aitzakiarik" erdigunera autoz etortzeko: "Ditugu igogailuak, autobus zerbitzua bikoiztu egin behar dugu… ez dago aitzakiarik herri erdira autoa ekartzeko. Eta hori herritarrok egiten badugu beharbada leku pixka bat gehiago izango dugu".

### HAUTESKUNDEETAN BERRIAK

Bukatzeko, hauteskundeetara begira, esan zuen ezker abertzaleak "obligazioa eta bokazioa" duela hauteskundeetan egoteko, eta uste duela egongo diela. Hori bai, bera, seguru aski ez dela alkategai izango ere esan zuen: "Ezker abertzalekoa sentitzen naiz, eta ezker abertzaleko moduan beti egongo naiz behar den gauzetarako, baina seguru alternatiba berri eta berritzailearen aldeko apustua egingo dugula".



Ino Galparsoro, GOITBko platoan. ENEKO AZKARATE

DATUA

**500.000**

**EURO**

Milioi erdi euro gastatuko ditu Udalak larrialdi egoeran dauden herritarrei laguntzeko. Berez hori Jaurlaritzaren eskumena izan arren, Udalak erabaki du herritar horiek babesten jarraitzea.

ESANAK

**"Gutxieneko nabarmenean gobernatzea oso gogorra izan da, baina esango nuke aurrera egitea lortu dugula"**

ESANAK

**"Ez dago aitzakiarik herri erdira autoa ekartzeko: ditugu igogailuak, autobus zerbitzua bikoiztu egin behar dugu..."**

**HEZKUNTZA**

# Ikastolaren jaia eta Perretxiko Eguna

Biharko, zapatua, Ferixalekuan egin dute hitzordua Arizmendikoek

**U.M.** > ARRASATE

Aurten, Perretxiko Eguna eta Ikastolaren Eguna batera ospatzea erabaki dute Arizmendi ikastolakoek. Hala, bihar egingo dituzte ospakizun guztiak, Ferixalekuan.

09:30ean gosari erraldoia egingo dute. 11:30etik 12:30era herri kirolak, 11:00etan hasiko dute perretxikoen erakusketa eta 12:30ean, Argitxoren, ikastolaren maskotaren urtebetetze ospakizuna egingo dute, tartean ikasleen emanaldi eta guzti. 12:00etatik 13:30era bitartean, berriz, pankarta tailerra, rokodromoa eta irratsaioa egingo dituzte, eta, ohi duten moduan, guztia borobiltzeko, Andaluzia, Extremadura eta Galiziako produktuak dituzten txosnak ipiniko dituzte.

## oharrak

IKASTAROA

**> Egurra lantzeko ikastaroa**

ARTEk, Arrasateko Tailerginen Elkarteak azaroaren 8an ekingo dio taila ikastaroari. Hasierako maila landuko dute. Eskolak izango dira astelehen, martitzen eta eguenetan, 17:30etik 19:30era. Izena emateko honako telefono batera deitu behar da: 620 17 42 55 (Jose Mari) edo 616 23 81 74 (Gregorio). Gogoratu behar da ARTEk egoitza berria daukala eta han izango direla eskolak: Nafarroa etorbidean, ospitale inguruan.

IKASTAROA

**> Meditazioa**

Meditazioaren gaineko hitzaldi informatiboa izango da urriaren 29an Uribe auzoa 7an, 19:00etan. Ahalik eta lasterren eman behar da izena: 943 79 12 95 edo 685 73 21 21 (Rosalina Garai) edo *rosalinagaray@yahoo.es.*

KINTOAK

**> 1955eko kintoak**

Azaroaren 27rako egin dute hitzordua 1955an jaio direnek Errioxara joan eta bazkaria egiteko. Joan gura duenak izena eman behar du azaroaren 19a baino lehen, 60 euro sartuta Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 02 02 762021037810.

**AISIALDIA** > GURASOLANDIA

# Berrituta datorren Gurasolandiak Arrasate hartuko du azaroko lehen astean

Bigarren Gurasolandia aste osora luzatu dute; aste barruan gurasoendako ekintzak izango dira eta asteburuan, berriz, haur eta gurasoendako

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Gurasoendako jolasparkearen bigarren edizioa azaroaren 2tik 7ra egingo da, herriko txoko ezberdinetan. Martitzenean aurkeztu zuen Txatxilipurdik ekimen berritzailea, Gurasolandiaren formatua eta izaera bakarrak dira-eta Euskal Herrian. Beraz, beste behin ere esan daiteke Arrasate aitzindaria dela halako egitasmoetan.

Gainera, bigarrena berritasunez josita dator: aste osora luzatu eta kokalekuz aldatzeaz gain –lehen edizioa Uarkape pilotalekura mugatu zen–, aurten inauguratzeko antolatu duten sare sozialen gaineko hitzaldia *streaming* bidez zuzenean ikusteko aukera egongo da, *www.guraso.com* webgunean.

**ETORKIZUNEKO EUSKARAREN ALDE**
Gurasolandia da gurasoendako ekintza sorta, eta haur eta gurasoen artean hizkuntzaren transmisioa bultzatzea du helburu. Baita guraso eta haurren arteko harremanak estimulatzea ere. Txatxilipurdik uste du hizkuntzaren transmisioan gurasoak oso garrantzitsuak direla, "etorkizuneko belaunaldien hizkuntza erabileretan egungo gurasoek zerikusi nabarmena dutelako".

Hala, haurrekin joateko aukera badago ere, aste barruko ekintzak gurasoendako bakarrik izango dira. Noski, ekitaldiotan haurren zaintza zerbitzua egongo da. Arrasateko gurasoei ez ezik, bailara osokoei zabalduko diete ekimena, baita Elorrio aldekoei ere.

**SEI EGUN, 12 EKINTZA**
Ekimena sei egunera luzatu dute; honakoa adierazi du Eneko Barberena Txatxilipurdiko zuzendariak: "Aurrekontua xumetu behar izan dugu eta horrek ekimena birplanteatzea ekarri du. Orain, aste osora luzatuta, egun gehiago eta aukera zabalagoa izango dute gurasoek parte hartzeko".

Egitaraua zabala da oso: lehen egunean sare sozialen gaineko hitzaldia egongo da Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (18:30); azaroaren 3an, mahai-ingurua egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:30). Gurasotasuna izango dute berbagai, Iñaki Casares eta Irene Txurrukaren eskutik. Hilaren 4an, elikadura izango du hizpide Sabrina Pato Ekolapiko egitasmoko kideak Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan (18:30). Azken hiru ekitaldiok gurasoendako bakarrik izango dira. Bestalde, aste bukaerarako antolatu dituzte ekitaldi potoloenak. Egubakoitzean, hilak 5, bi ekintza izango dira: batetik, psikomotrizitatea –Kulturateko Jokin Zaitegi gelan 17:30etik 19:00etara– , eta bestetik, hankapaluak eta *balance bike*-ak –Biteri plazan, 17:30etik 19:30era–. Zapatuan, lau ekintza: haur masaje tailerra Okendoko ludotekan –10:30etik 12:00etara–, euskal dantza ikastaroa Kulturateko Loramendi gelan –11:00etatik 13:00etara–, ipuin kontaketa saioa Okendoko ludotekan –17:00etatik 18:00etara– eta mihiluze txapelketa Kulturateko areto nagusian –18:00etatik 20:00etara–.

Domekan, bukatzeko, Besaidera mendi irteera –09:00etan Arbolapetan edo 10:30ean Udalan–. Eta Gurasolandia agurtzeko, arratsaldean sormen txokoa eta karaokea eta disko jaia egingo dituzte Herriko Plazan –17:00etatik 19:30era.

**'GURASO.COM'-EN, ZUZENEAN**
*Guraso.com* webguneak ere ezin zuen hutsik egin; Gurasolandian egongo da Interneteko ataria, zuzenean: sare sozialen gaineko hitzaldia zuzenean ikusi ahalko da webgunean, *streaming* bidez.



Eneko Barberena, Jon Urdiñeta, Aizpea Otxandiano eta Leire Azpitarte. J.B.

ESANAK

**"Aste osora luzatuta egun gehiago eta aukera zabalagoa izango dute gurasoek parte hartzeko"**

**Eneko Barberena** > Txatxilipurdi elkarteko zuzendaria

OHAR GARRANTZITSUAK

**> DOAKOA**
Ekintza guztiak musu truk dira.

**> IZENEMATERIK EZ AURREZ**
Ez da matrikularik egin behar, agertzearekin nahikoa da.
Mihiluze txapelketa da salbuespena: bi gurasoko bikoteak, eta haurrak animatzaile. Izena emateko: *gurasoak@txatxilpurdi.com*-era e-posta bidalita edo ludoteketan.

**> ZAINTZA ZERBITZUA**
Gurasoendako diren ekintzetan.

**> EGURALDIA TXARRA BALITZ...**
Bertan behera geratuko dira domekako ekintza guztiak.

**HEZKUNTZA** > UNITATE DIDAKTIKOAK

# 'Herria ezagutzen': Arrasateko historia eta kultura ondarea ikasgeletan erro dadin

Arrasateko historia bertatik bertara lantzeko asmoz unitate didaktikoa abiaraziko du Udalak Lehen Hezkuntzan, azaroan

**J.B.** > ARRASATE
Atzo aurkeztu zituzten *Herria ezagutzen* unitate didaktikoa osatzen duten liburu sortako lehen hiru zenbakiak. 2011ko maiatzaren 15a baino lehen aurkeztuko dituzte gainontzeko hirurak.

Udaleko Hezkuntza Sailak *Hik Hasi* aldizkariarekin elkarlanean argitaratutako liburu sorta da, eta Arrasateko bi ikastetxeetako irakasleen laguntzarekin Arrasateko kultura ondarea Lehen Hezkuntzako ikasleen esku uztea du helburu. Arrasateko historiaren pasarte garrantzitsuenak biltzen dira liburuotan, kobazuloetako lehen biztanleetatik hasi eta gaur egunera arte. Herriko kondairak, pasarte historiko garrantzitsuenak, ohiturak, eraikinak, biztanleen bilakaera... Hainbat arrasatearrek erabat ezagutzen ez duten edo, besterik gabe, ezezagunak diren gaiak lantzen dira.

Izan ere, Lehen Hezkuntzako ikasleendako liburuak badira ere, herritar guztiendako egongo dira laster eskuragarri Udalaren webgunean. Irakasleendako ere liburu bereziak prestatu dituzte, ikasgeletan gai horiek lantzeko orduan lagungarri izateko.

**GURE HISTORIA JAKIN BEHARRA**
Liburuen bultzatzaileek adierazi dutenez, beharrezkoa ikusten zuten ikasleei Arrasateko historia irakastea; azaldu dutenez, munduan gertatzen denaz eta munduan dagoenaz "gero eta gehiago" dakigun garai hauetan, herriko kontuak askotan ezezagunak direlako.



Unitate didaktikoko lehen hiru liburuxkak; sei dira guztira. J.B.

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO KOOPERATIBEK?

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO UDALETAKO LANGILEEK?

**ATLETISMOA** > ARRASATE KANPANZAR ATLETIKO TALDEA

# Gurean gertutik jarraitzeko moduko kirolariak daudela erabaki du Aldundiak

Arrasate Atletiko taldetik irten diren lau atleta 'Etorkizuneko kirolari' izendatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak


Arrasate Atletiko Kanpanzar taldearen familia erretratua, Mojategiko atletismoko instalazioetan. ARRASATE ATLETIKO

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Arrasateko atletismo taldeak eman dituen lau harribitxik Diputazioaren laguntza izango dute kirol jarduerarekin jarraitu ahal izateko, *Etorkizuneko kirolari* izendatu berri dituzteeta. Malen Ruiz de Azua aretxabaletarra eta Iñigo Uribarren, Maialen Axpe eta Lore Mar arrasatearrak dira hiru atleta horiek.

Gipuzkoako Diputazioak 2010-2011 denboraldian gertutik jarraitu beharreko 20 atleten zerrenda aurkeztu berri du, eta zerrenda horretan datoz Arrasateko klubeko laurak.

**PERTIKA SALTOAN, EREDU**

Deigarria da –baina ez da berria– lau atleta horietatik hiru pertika saltoan nabarmentzen direla, Arrasateko klubean modalitate horretan jasotzen ari diren emaitzen seinale. Jonathan Perez entrenatzailearen aginduetara egon dira Lore Mar, Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua.

Gizonezko bakarra, Iñigo Uribarren, salto hirukoitzean izan dezakeen etorkizunagatik aukeratu dute.

**DENBORALDI BERRIA**

Puntan dabiltzan atleta horiekin batera, Arrasate Atletiko taldeko gainontzeko neska-mutikoek ere orain hasiko dute denboraldia –goian talde argazki berria–. Txapelketetan ondo jarduteko egingo dute lan, baina, batez ere, gazteengan atletismoa sustatzea izango dute taldeko arduradunek helburu nagusi.

**MENDIKO BIZIKLETA** > ARRASATEKO MARTXA

# Bizikletan, Joseba Iglesiasen omenez


Arrasateko txirrindulariak, Ikutixoko jaitsiera egin ostean, iaz. X.U.

Besaideko mendi hamabostaldi barruan egingo dute bihar (10:00) mendiko bizikleta martxa

**X.U.** > ARRASATE

Bihar, zapatua, goizean egingo dute Besaideko hamabostaldiko azken hitzordua, Arrasateko mendi bizikleta martxa. Aurtengoa, gainera, Besaideko kide zen Joseba Iglesiasen omenez antolatu dute, besteak beste, Arrasateko gaztea bizikletazale amorratua zen-eta.

Biharko hitzordua 10:00etan da, baina ordu erdi lehenago joatea komeni da izena eman ahal izateko (federatuek 5 euro, ez federatuek 10 euro, Musakolako kiroldegi barruan).

**32 KILOMETROKO IBILBIDEA**

Antolatzaileek 32 kilometroko ibilbidea prestatu dute, eta, jendea iaz gustura ibili zenez, apenas egin dute aldaketarik. Aldaketa bakarra Kurtzetxiki inguruan izango da. *www.goiena.net/blogak/debagoienamtb* helbidean duzue informazio gehiago.

## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iluntz-Ekaitz | 2-6 |
| Abokajarro-Dublin | 10-7 |
| Dribling-Steaua del Grifo | 12-2 |
| Fidel 6 Disc.-McAwenDauen | 3-5 |
| Iriztu-Cipris | 4-2 |
| Betrayer-Portaboleiros | 3-2 |
| Lasagabaster-Fuxxion | 6-1 |

**PARTIDUAK**

| Urtarrilak 23, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| 11:30 Betrayer-Lasagabaster | Iriztu |
| 12:30 Fuxxion-Iriztu | Betrayer |
| 16:00 Abokajarro-McAwenDauen | Fidel & D. |
| 17:00 Portaboleiros-Fidel & Disc | McAwen |

| Urtarrilak 24, domeka | Epaileak |
|---|---|
| 11:30 Ekaitz-Steaua del Grifo | Dublin |
| 12:30 Iluntz-Dublin | Steaua del Grifo |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Dublin | 3 | 1 |
| 2. | Lasagabaster | 3 | 1 |
| 3. | Ekaitz | 3 | 1 |
| 4. | Abokajarro | 3 | 1 |
| 5. | McAwenDauen | 3 | 1 |
| 6. | Iriztu | 3 | 1 |
| 7. | Betrayer | 3 | 1 |
| 8. | Portaboleiros | 0 | 1 |
| 9. | Fidel & Disc. | 0 | 1 |
| 10. | Cipris | 0 | 1 |
| 11. | Dublin | 0 | 1 |
| 12. | Iluntz | 0 | 1 |
| 13. | Fuxxion | 0 | 1 |
| 14. | Steaua del Grifo | 0 | 1 |

### Iaz baino bi talde gutxiagorekin, abian da torneoa

Joan den asteburuan hasi zuten Zaldibarko areto futbol txapelketa, iaz baino bi talde gutxiagorekin. Talde batzuek ez dute izenik eman eta beste batzuk batu egin dira. Baina badira berriak ere, Betrayerren kontra ia ezustea eman zuen Portaboleiros, kasu.

### Driblingek amaitu moduan hasi du txapelketa, bikain

Iazko txapeldun Driblingek bikain amaitu zuen txapelketa, eta halaxe hasi du torneo berria, Steaua del Grifori hamabi gol eginda. Bestalde, derbi polita jokatu zuten Iluntzek eta Ekaitzek (2-6). Badirudi Ekaitz ondo indartu dela aurtengo txapelketari begira.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**ZARZUELA** > AMAIA ANTZOKIAN

# Madrilen Gran Via eraiki zuteneko istorio eta pasarteak

Izaskun Murgia elkarteko kideak eta Arrasate Musikaleko orkestra izango dira agertokian



Iazko *La corte del faraón* zarzuelako irudia. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE
Martxo erdialdea ezkero dabiltza Izaskun Murgia elkarteko lirikoak *La Gran Vía* lana entseatzen. Azaro bukaeran estreinatuko dute, Amaia antzokian.

Tere Gonzalez da zarzuelako zuzendari orokorra, betiko moduan. Haren berbetan, orain arte egindako zarzuelekin alderatuta ezberdina da oraingoa. "Ez du hari jakin bat jarraitzen", dio Gonzalezek. XX. mende hasieran Madrilen gertatutakoak jasotzen ditu zarzuelak.

**GRAN VIA ERAIKI ZUTENEKOA**
Istorioa Madrilgo Gran Via kalea eraiki zuten garaian kokatzen da, XX. mende hasieran. "Herritarren komentarioak dira, Gran Via egiteak herritarrengan izan zuen eragina kontatzen dutena", dio Gonzalezek. "Garai hartako politika kontuak satirizatzen dira, eta baita madrildarrak eurak ere", gaineratu du zuzendariak.

Gran Via kalea eraikitzeko 334 eraikin bota behar izan zituzten, eta hainbat kale eta eliza desagertu ziren. Hori dela-eta, garai hartan Madrilen bizitakoak kontatuko dituzte zarzuelan. Protagonistak asko izango dira eta denak elkartuko dira Eliseo lokalean garai hartan hain ezagunak ziren txotisak kantatzen.

**PROTAGONISTAK**
Zarzuelan 100 lagunetik gora parte hartuko dute. Protagonistak izango dira: ibiltaria, Mikel Izurrategi; zalduna, Igor Ganboa; Menegilda, Susana Vazquez; Doña Virtudes, Guren Ana Gonzalez; segurtasuna, J.J. Heriz; *Jokoa*, Arkaitz Garrido; *Chotis*, Ruth Osinaga; eta *Las ratas* –lapurrak–, Enrique Altuna, Adrian Sales eta Iñaki Olaizola.

SARRERAK

## Laster jarriko dituzte sarrerak salgai

Zarzuelako emanaldiak izango dira azaroaren 20an, 21ean, 26an eta 27an, 19:30ean –azaroaren 26a egubakoitza denez 20:00etan izango da hitzordua–. Sarrerak datorren astean jarriko dituzte salgai Arrasate Musikaleko bazkideendako, hilaren 25etik 28ra, Arrasate Musikalen, 16:30etik 19:30era. Ondoren, estreinaldirako lehentasuna izango dute zarzuelan parte hartuko dutenen senideek. Azaroaren 21eko eta 27ko sarrerak eta saldu ez diren gainontzekoak Kutxan jarriko dituzte salgai.

**TEATRO FELIPEN ESTREINATU ZEN**
*La Gran Vía* zarzuela 1886an estreinatu zen Madrilgo Teatro Felipen. Testua Felipe Perez Gonzalezena da; eta musika, ostera, Federico Chueca eta Joaquin Valverderena.

Musika bizia eta ezaguna dela adierazi du Gonzalez zuzendariak. "Abeslarientzat obra zaila da; batez ere emakumeendako, zortzi abesti dituzte-eta", dio Gonzalezek. *Luisa Fernanda* zarzuelan erabilitako arropa aprobetxatuko dute XX. mende hasiera irudikatzeko. Izaskun Murgia elkarteko lagunez gain, Arrasate Musikaleko orkestrako lagunak ere izango dira agertokian.

**Arantxa Moñux** > Higa antzerki taldeko kidea

# "Amaia Lasaren olerkiei ahotsa jartzeko aitzakiarekin sortutakoa da 'Espazio hutsak'"

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE
**Higa taldeak *Espazio hutsak* antzezlana eskainiko du eguaztenean, hilaren 27an, Kulturaten, 19:00etan.**



Arantxa Moñux.

**Nolako lana da *Espazio hutsak*?**
Amaia Lasaren *Geroaren aurpegia* poesia liburuan oinarritu ginen. Egileak plazaratutako gaiak egoki ikusten genituen, ukitu egiten gintuztelako.

**Zeintzuk dira gai horiek, bada?**
Gizartearen inguruan nolabaiteko inkonformismoa sumatzen da eta tartean dira gizon eta emakumeen arteko harremana, maitasuna, emakumetasuna, nork bere buruarekiko harremana... Olerkiei ahotsa jartzeko sortutako lana da. Taldekideok lehendik ezagutzen genuen elkar, haur antzerkian jardun garelako. Mertxe Castañok zuzenduta, Kristina Ropero, Maria Alonso eta hirurok izango gara agertokian. Iñaki Santos musikariaren laguntza izango dugu baita.

**Amaia Lasak berak ere ikusi du antzezlana, ala?**
Bai; ekainean, Oreretan. Asko gustatu zitzaion.

**Norendako lana da?**
Emakume garen aldetik egin dugu, baina ez da bakarrik emakumeendako. Olerkiek dute protagonismoa eta horren inguruan mugimendu-partitura batzuk ditugu.

> MUSIKA

### Gaztemaniak! zirkuituaren barne Dan Baird & Homemade Sin taldea hurrengo egubakoitzean

Dan Baird & Homemade Sin taldeak emanaldia egingo du egubakoitzean, hilaren 29an, Amaia antzokian, 20:00etan. Gaztemaniak! zirkuituaren barruan antolatutako emanaldia da eta sarrerak 7 eurotan daude salgai *generaltickets.com* webgunean. Dan Bairdek Homemade Sin taldeko kideak izango ditu alboan: Mauro Magellan, Keith Christopher eta Warner E. Hodges gitarrista.

> ZINEMA

### 'Conocerás al hombre de tus sueños', 'Campanilla y el gran rescate' eta 'Vincere' filmen emanaldiak

Woody Allen zuzendariaren azken filma, *Conocerás al hombre de tus sueños*, ikusi ahal izango da asteburuan Arrasaten. Bihar, zapatua, izango da emanaldia, 19:30ean, eta astelehenean 20:30ean. Domekan, 17:00etan, haurrendako emanaldia izango da: *Campanilla y el gran rescate*. Eta eguenean, hilaren 28an, Marco Bellocchiok zuzendutako *Vincere* filma eskainiko dute Amaia antzokian, 20:30ean.







**LANAK** > E PLANA

# Beste sarrera bat egin dute Irizarren, irisgarritasunagatik

Eraikinaren albo baten egin dute, mugikortasun arazoak dituztenek zuzenean igogailura jotzeko; igogailuaren egitura egiten ere bukatu dute dagoeneko



Hegaleko bi pieza, tratatuta.



Igogailuarendako egitura prest dago, eskailera-begian.



Banaketarako tabikeak jartzen, teilatupean.

ARGAZKIAK: ZETABI ARKITEKTURA BULEGOA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Irizar jauregia zaharberritzeko lanak martxa onean doaz. Oraingoz, egituran, teilatuan eta hegalean egin dituzte lanik nabarmenenak. Eraikinaren egiturari dagokionez, egurrezko egitura guztia bistaratu eta garbitu eta xilofagoen aurkako tratamendua eman diote. Horrekin batera, egurrezko egiturari laguntzeko egitura metaliko paraleloa jarri dute, eraikinaren erabilpen berriak eragingo dituen gainkargei eusteko eta egitura indartzeko –egitura hori ezkutuan geratuko da tabikeen barruan.

Bada, egituraren berritze eta egonkortze lanok bukatu dituzte eta distribuzio berriarekin eta instalazio lanekin hasi dira dagoeneko.

**LAN BEREZIENAK DEKORATUAN**

Teilatuari dagokionez, egitura lanak bukatu dituzte eta teilatuko lan guztiak bukatzeko teilak jartzea bakarrik falta da.

Oraingoz egindako lanik berezienak etxeak buelta guztian duen hegalean egin dituzte. Piezaz pieza desmuntatu dute egurrezko hegala eta garbitu egin dute, tratamendu bereziak eman ahal izateko. Tratamenduok eman dituzte eta hegala muntatzen ari dira.

**SARRERA BERRIA**

Eraikinean igogailua jartzeko lanak ere aurrera doaz eta dagoeneko egin dute igogailuarendako egitura.

Era berean, irisgarritasuna bermatzeko lan gehiago ere egin dituzte. Hain justu ere, beste sarrera bat zabaldu dute, batik bat mugikortasun arazoa dutenendako: Barrenkalea 35 eraikinaren eta Irizar etxearen artean egin dute sarrera hori, eta Irizar etxearen barruan egingo duten malda baten bidez igogailura heldu ahal izango da.

## oharrak

KINTADA

**> 1943an jaiotakoek (55eko kintoak) bazkaria egingo dute**

Azaroaren 20an egingo dute, Erreki erretegian. 14:00etan txikiteoa eta talde argazkia egingo dituzte eta bazkaria 14:45ean izango da. Izena Errekin eman behar da, 12 euro aurreratuta.

DEIALDIA

**> Pol-Pol mendizale taldeak ezohiko batzarra deitu du**

Hilaren 28an egingo dute, Miguel Altunan. Lehen deialdia 18:30ean da eta bigarrena 19:00etan. Gaur egungo egoeraz jardungo dute.

KINTADA

**> 1940an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 6an**

Torrekua jatetxean egingo dute, 14:30ean. 13:30ean meza egongo da Sierbetako elizan. Izena emateko, 943 76 35 76 edo 943 76 30 26 telefono zenbakira deitu behar da.

IKASTAROA

**> Egur taila ikastaroa azaroan hasiko da**

Izenematea zabalik dago Taila Eskolak Zabalotegi 11 behean duen egoitzan, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

BERTSO AFARIA

**> Artatse elkarteko bertso afarirako txartelak salgai**

Bihar, zapatua, izango da, 21:00etan, Artatse elkartean, eta txartelak salgai daude Kortazar eta Arrano tabernetan, 20 eurotan –16 euro ikasleendako eta langabezian daudenendako–. Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariek parte hartuko dute.

**JENDARTEA** > OSPAKIZUNA

## Elkoro etxean dagoela ospatzeko bazkaria 31n

Txartelak dagoeneko salgai daude tabernetan

**M.B.** > BERGARA

Jose Luis Elkoro etxean dagoela ospatzeko herri bazkaria antolatu du haren aldeko plataformak.

Hilaren 31n izango da, Udal pilotalekuan eta txartelak dagoeneko salgai daude 20 eurotan honako taberneta hauetan: Euse-bio, Kortazar, Deportivo, Ariznoa eta Arrano.

Egun horretako ekitaldiak 12:00etan hasiko dira San Martin plazan botako duten txupinazoarekin, brindisarekin eta bertsoekin. Gero, Udal Musika Bandak eta trikitilariek herriko tabernetako txikiteoa alaituko dute eta 14:30ean bazkaria hasiko da. 17:00etan dantzaldia ere egongo da.

Elkoro urriaren 14an atera zen kartzelatik. Horixe izan da *Mugituko da* izenarekin ezagutu den jende multzoaren aldarrikapena, eta ospatu nahi dute.

Bestalde, argitu nahi dute hainbat komunikabidetan azaldu bada ere Elkoro libre laga dutela haren osasun egoera oso txarra delako, eurak uste dutela hori ez dela egia: "Kartzelan sartu zutenean bere osasun egoera ez zelako gaurkoa baino hobea, eta hala ere ez zitzaien axola izan".







JARDUN ELKARTEA

## Zer dira kartel horiek?

Zer dira Errotalde parkean, San Martin plazan eta Irala kalean zuhaitz eta leihoetan zintzilik azaldu diren kartelak? Hizkuntzak ote dira kartelotan idatzita agertzen direnak? Bada, bai; munduko hizkuntzen izenak dira, eta Topaguneak Auzoko programa ezagutzera emateko herritarrengan jakin-mina pizteko abiarazi duen kanpainaren parte dira.

bote prontuen

**Lorea Arregi** > Mgusta fruta-denda kateko Debagoieneko arduraduna

# "Bezeroekiko arreta eta jeneroaren kalitatea dira gure oinarriak"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

**Hiru frutategi ditu Mgusta kateak Debagoienean: Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran. Hiruretan berriena da Bergarakoa; azaroaren 28an urtea beteko da zabaldu zutena. Eibarren ere badute bat eta Euskal Herrian barrena gehiago zabaltzeko asmoa ere badutela esan du Lorea Arregi bergararrak, Debagoieneko denden arduradunak.**


Lorea Arregi, barazki otarrea erakusten. M.B.

**Zerk ezberdintzen du Mgusta beste fruta-dendetatik?**

Batik bat, jeneroaren kalitateak eta bezeroekiko arretak.

Jeneroari dagokionez, kalitate handikoa da eta bezeroek hori egiazta dezaten egunero egiten ditugu dastatzeak dendan, garaian garaiko produktuekin. Bezeroekiko arretari dagokionez, garrantzi handia ematen diogu; oso pertsonalizatua da. Esaterako, saiatzen gara edadeko pertsonei begira egoten etengabe, erosketak egiten laguntzen; eta, pisua hartuz gero, bada, etxera ere eroaten diogu erositakoa. Hori beste denda batzuetan ez dute egiten.

**Bertako ortuko produktuen alde ere egiten duzue.**

Bai. Bergarako baserri batetik ekartzen digute sasoian sasoikoa. Orain dauzkagu, esaterako, porruak, tomateak, letxugak, kipulak, azak...

Eta bertako fruta ere badugu; Oñatiko sagarra eta Nafarroako madaria, esaterako.

**Mgustako produktu izarra zein da?**

Kalitate handiko markak, erabateko bermea dutenak: Bollo sorta guztia eta Del Monte anana [piña].

**Zer da gehien saltzen duzuena?**

Patatak, porruak, baserriko tomateak, lekak, laranjak eta sagarrak. Horiek, gutxi gorabehera, urte osoan saltzen dira. Hala eta guztiz ere, irail-urri aldea ez da oso garai ona izaten; oso garai tristea da. Normalean, irailean beherakada sumatzen da salmentetan eta joera izaten da hilabeteak aurrera egin ahala gorako bidea hartzea Gabonak arte. Gabonetan aldatu egiten dira gauzak: orain eskaintza bereziei begira egoten diren neurrian, Gabonetan az zaio diruari horrenbesteraino erreparatzen.

**"Saiatzen gara edadeko pertsonei laguntzen eta pisua hartuz gero, etxera ere eroaten diogu erositakoa"**

**"Gama altuko produktuekin lan egiten duten beste denda batzuk baino prezio lehiakorragoak ditugu"**

**Bergarako, Aretxabaletako eta Arrasateko dendak, hirurak berdinak dira?**

Ez. Arrasatekoan eta Aretxabaletakoan fruta eta barazkiak saltzen dira eta Bergarakoan, horiek saltzeaz gain, bestelako elikadura, ardoak... saltzen dira.

Bestetik, Bergarako denda zabaldu aurretik oso ondo aztertu zuten kokalekua, antolaketa... Ez da kasualitatea alde zaharrean egotea denda.

Bestalde, kontuan hartzekoa da goi gamako produktuekin lan egiten duten beste denda batzuek baino prezio lehiakorragoak ditugula.

**Eskoletara ere bidaltzen duzue fruta, hamarretako egiteko.**

Bai; gertutasunagatik Aranzadira, 50 ikaslerendako.

**Mgustako saltzaileak ze ezaugarri behar ditu?**

Saiatzen gara bezeroari eskertzen gure denda aukeratu izana. Bestalde, bezeroari etengabeko arreta eskaini behar dio, eta haren beharrei aurreratzen ere saiatu behar du. Hori guztia, irribarretsu eta umore onarekin.

**POLITIKA** > EZKER ABERTZALEA

# Sigla propioekin kudeatu nahi ditu ezker abertzaleak alkatetza eta Udal Gobernua

Hauteskundeei begira, herritarren partehartzea bilatuko dute "programa eta zerrenda osatuenak egiteko asmoz"

M.B. > BERGARA

Ezker abertzaleak ikasturte politiko berriko lehenengo batzarra egin zuen azaroaren 6an. Han, Euskal Herriak bizi duen egoera politikoaren irakurketa eta urteko zeregin nagusiak azaldu eta adostu zituzten, bidalitako prentsa oharrean azaltzen dutenez.

Bergarako ezker abertzaleak uste du ikasturte politikoa "krisialdi ekonomikoaren eta ilegalizazioaren lainoek ilundua" hasiko den arren, badirela laino artean ostarteak zabalduko dituzten argi izpiak, "Zutik Euskal Herria ebazpenean ezker abertzaleak zehaztu duen estrategia berritua", besteak beste.

Bergarako ezker abertzaleak dio, aldebakartasunez, atzera bueltarik ez duen prozesu demokratikoa abiarazi dutela, eta prozesu horrek aurrera jarraitzeko, "eskubide zibil eta politikoen alde indarrak batu" nahi dituela. Horretarako, Gernikako Akordioan jasotako edukiak sozializatu eta akordioa sinatu zuten, eta herriko eragile sindikal eta politikoekin batzeko konpromisoa ere hartu dutela azaltzen dute oharrean.

**AGINTALDI BERRIKO HELBURUAK**

Agintaldi berriari begira Bergarako ezker abertzalearen helburua da "sigla propioekin alkatetza eta Udal Gobernua kudeatzea, orain arteko ausardia eta determinazio berberaz, *Euskal Herria Ezkerretik eraikiz* proiektu politikoa garatzen segitzeko".

Horretarako, 2011ko udal eta foru hauteskundeetarako zereginak dagoeneko zehaztu dituzte, eta baita abian jarri ere. Hori horrela, "herritar ororen partehartzea bilatuko eta bultzatuko duen diagnostikoa eta programa egitera goaz, "ahal den hauteskunde programa eta zerrenda osatuena garatzeko asmoz", diote. Era berean diote: "Ahal dugun guztia egingo dugu gure herria eraikitzeko ezinbesteko ditugun tresna parte-hartzaileak guztion eskura jartzeko". Eta gehitzen dute: "Argi dugu bergarar guztion parte-hartzeak sorrarazten duen ilusio eta indarra dela Euskal Herriaren burujabetzaren alde urrats sendoak emateko berme nagusia".

> DEIALDIA

## Bergarako Realzaleak taldeak, aurrerantzean, autobusa erreserbatuko du Anoetara joateko

Elkartetik jakinarazi nahi diete bazkide guztiei Coruñako Deportivo taldearen aurkako partidutik aurrera, urriak 25, autobusa erreserbatuko dutela Anoetan jokatuko diren partiduetara joateko. Txartelen kolorea zuria izango da partidu guztietarako eta Deportivo tabernan hartuko dira. Horretarako, Realeko karneta eta zaleen taldekoa aurkeztu beharko dira. Prezioa 2 euro da.

ARKUPE
AHOLKULARITZA
Negozio berrien hasieran erabateko aholkularitza
Fiskalitatea
Kontabilitatea
Laborala
Inbertsioen aholkularia
BERGARA
Labegaraieta industrialdea
Telleria, 6 bis, 2. bulegoa
ARRASATE
Garibai etorbidea 4
Tel.: 943 76 26 09 / 943 79 94 72
Faxa: 943 76 38 53
arkupe@arkupe.net - www.arkupe.net

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

**ARETO FUTBOLA** > LABEGARAIETAKO TXAPELKETA

# Azaroaren 6ko eta 7ko asteburuan hasiko dute Labegaraietako areto futbol txapelketa

## Azaroaren 5a izango da izena emateko azken eguna; lehenago, baina, batzarra egin nahi dute ordezkariekin


Errota-gain taldeak azaroaren 6tik aurrera izango du iaz irabazitako txapela defendatzeko aukera. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Labegaraietako areto futbol txapelketako antolatzaileak burubelarri dabiltza azaroan hasiko den txapelketa antolatzen: "Iaz baino beranduago hasiko dugu txapelketa, eta horregatik erabaki dugu taldeei azken unera arte izena emateko aukera ematea. Izena emateko baino gehiago, ordainketa egiteko utziko diegu denbora hori; izan ere, dagoeneko iazko talde gehienek adierazi digute aurten ere txapelketan izango direla", esan du antolatzaile lanetan dabilen Pedri Zafrak.

**TALDE KOPURUARI EUTSI**

Iaz hamabi taldek hartu zuten esku txapelketan, eta lehenengo helburua talde kopuru horri eustea izango da: "Badirudi hor ez dugula arazorik izango eta baliteke iaz egon ez zen talde berriren bat edo beste animatzea".

Hala, taldeek izena emateko Euskadiko Kutxako honako zenbaki honetan 200 euro sartu beharko dituzte: 0090033922. Esan beharra dago kontu korronte hori Lagunak kirol elkartearen izenean dagoela.

Horrekin batera, taldeetako ordezkariak gonbidatuta daude urriaren 26an Bergarako kultura etxean egingo den batzarrean esku hartzera (19:30). Bertara eraman beharko dute talde bakoitzeko jokalarien zerrenda, nortasun agiri eta guzti. Informazio gehiago *www.bergarakotxapelketa.iespana.es* webgunean.

**PIRAGUISMOA**

# Patxi Ugalde Dutch Open txapelketan dabil lehian

**X.U.** > BERGARA

Bergarako gazte mailako piraguista Espainiako selekzioarekin lehiatzen dabil egunotan Holandan. Nazioarteko Dutch Open txapelketa eguaztenean hasi zuten eta piraguistak domekara arte izango dira lehian.

Bestalde, Beti Busti elkarteak 25 urte beteko ditu aurten eta urteurren hori ondo ospatzeko asmoa dute klubeko arduradunek. Horretarako, erakusketaren bat edo beste antolatzeko asmoa dute, eta baita Gipuzkoako txapelketaren bat Bergarara ekarri ere. Azaroaren 20an nahi dute infantilen eta alebinen txapelketa egin.

**GAZTEENAK HERNANIN**

Beti Bustiko lagunak hasi dira berriro piraguismoko txapelketetan esku hartzen. Hain zuzen, joan den asteburuan etxeko taldeko gazteenak, alebinak eta infantilak, Hernanin izan ziren lehian, Gipuzkoako txapelketarako baliagarria den lehen proban.

Hala, txapelketan izan ziren Asier Gonzalez, Ana Usabiaga, Gorka Marquez, Javier del Rey, Leire Ugalde eta Mikel Zubizarreta, eta, bakarka egin zuten lan onari esker, taldeka hirugarren sailkatu ziren.


J.L.GALLASTEGI

# Euria bada ere, Hanka Labanka taldeko kideak ez dira kikiltzen

Urriaren 17an egin zuten Donostiako 15 kilometroko lasterketa, eta atletak irten aurretik patin gainean dabiltzanak irten ziren. Hanka Labanka-Enbalan3 taldeko patinatzaileek azken ordura arte zalantza izan zuten irten edo ez, euria zelako eta lurra labainkor zegoelako. Baina ez zuten atzera egin: "Nahiz eta zutik egoteko lanak izan genituen!".

> SASKIBALOIA

## Soraluce BKE taldeak Goierriren kontra jokatuko du etxean

Joan den astean ligako lehenengo porrota jaso ostean (63-48 Errotaundiren kantxan), David Urbinaren mutilek ligako hiru partiduak irabazi dituen Hiercor Goierri taldea izango dute aurrean.

Norgehiagoka domekan izango da (17:00) Labegaraietako kantxan.

Iturgintza - Berogintza
Laskurain
- Etxebizitzen zaharberritzeak
- Berogailuen instalazioak
- Aire egokitua
- Bainurako altzariak, iturriak eta era guztietako osagarriak
- Edozein konponketa lan

Barrenkale 44 - Tel./Faxa:943 76 24 89 - Mugikorrak: 607 76 24 89 / 610 20 54 99

**PINTURA** > IKASTAROA AZAROAN

# 'Pinturaren gorputza' ikastaroa antolatu du Beart elkarteak

Bergaran bizi den Laia Bedos Bonaterra margolari katalana izango da irakaslea; azaroaren erdialdean hasiko da ikastaroa


Ikastaroaren helburua naturaltasuna eta intuizioa lantzea da. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bergarako Beart herriko artisten elkartearen eskutik, *Pinturaren gorputza* ikastaroa izango da azaroan. Naturaltasunetik eta intuiziotik lan egiten ikastea da helburuetako bat. Bergaran bizi den Laia Bedos Bonaterra margolari katalana izango da ikastaroa emango duena.

Aipatutako ikastaro edo tailerra pinturarekin esperimentatu nahi duten guztiei dago zuzenduta eta ez da beharrezkoa aldez aurretik inolako ezagupen edo mailarik izatea. Bi ordutegi proposatzen dituzte antolatzaileek: alde batetik, aste barruan, azaroaren 15etik 19ra, 18:00etatik 21:00etara; edo, bestela, azaroaren 12an (egubakoitza, 18:00etatik 21:00etara), 13an (zapatua, 16:00etatik 20:00etara) eta 14an (domekan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara).

**IZENEMATEA, HILAREN 31RA ARTE**

Edozein kasutan, partaide kopurua, gehienez, 15 lagunekoa izango da. Matrikularen prezioa 60 euro da eta interesatuek Bearteko Maiterengana jo beharko dute, 635 71 32 69 telefonora deituta edo ondoko helbidera idatzita: *beart.elkartea@gmail.com*.

Izena ematen dutenek zein ordutegi interesatzen zaien adierazi beharko dute; era berean, ordutegi horretarako talderik ez balitz sortuko, tailerra beste ordutegiren batean egin nahi duten zehaztu beharko dute.

Izena emateko epea urriaren 31ra arte dago zabalik. Ikastaroaren gaineko argibide gehiago Laia Bedosen webgunean duzue: *www.bedosbonaterra.com*.

> MUSIKA

## Tulsa eta Dante Place taldeen emanaldia gaur Tartufon

Tulsa eta Dante Place taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, San Juan auzoko Tartufo tabernan. Emanaldia 23:00etan hasiko da eta sarrerak 10 eurotan jarriko dituzte salgai. *Espera la pálida* da Tulsaren azken diskoa. Aurretik *Sólo me has rozado* eta *Tulsa* kaleratu zituzten. Miren Iza hondarribiarra da taldeko abeslaria.

Datorren egubakoitzerako, berriz, Fatal Smile iragarrita dago Tartufon.

> MUSIKA

## Aitor Olea organo-jotzailearen emanaldia San Pedron bihar

Organo erromantikoaren nazioarteko XI. kontzertu zikloari amaiera emateko, bihar, zapatua, Aitor Olea organo-jotzaileak emanaldia egingo du San Pedro parrokian, 20:00etan.

Durangon jaiotakoa, Aitor Olea Arrasaten hasi zen musika ikasten, solfeoa eta pianoa, hain zuzen. Organoko goi mailako titulua dauka. Bergarako San Pedro elizan jo izandakoa da aurretik.



**AUZIA** > ETXEBIZITZA

## Olabartako etxea okupatu zutenen aurkako deklarazio judiziala hasi dute

'Okupek' diote hiru urte daramatzala etxeak hutsik; alkateak dio prozesu jakin bat jarraitu behar dela han bizi izateko

**A.E.** > OÑATI
Ekain hasieran herritar talde batek Olabartako elkartearen gainean dagoen etxea okupatu zuen. Etxea Udalaren jabetzakoa da, laguntza sozialerako etxebizitza bat. Uztailean Udalak denuntzia jarri zien etxea okupatu zutenei. Orain, deklarazio judizialetan hasi dira.

Etxea okupatu zutenek azaldu dutenez, laguntza sozialerako den etxeak "hiru urte daramatza hutsik". Gaineratu dute eurekin harremanetan jarri gabe Udalak denuntzia jarri ziela uztail hasieran; eta, gainera, igeltseroak bidali zituztela etxea hesiz ixtera.

Etxea okupatu zutenek EAJ egiten dute etxebizitzen egoeraren erantzule zuzen, azken urteetan agintean egon direnak eurak direlako. Diote Oñatin 4.000 etxebizitza huts daudela.

**ALKATEAK DIOENA**
Lourdes Idoiagak dio laguntza sozialerako etxebizitza dela eta, ondorioz, prozesu bat jarraitu behar dela han bizi ahal izateko. Okupatzea "gainerako herritarrei aurre hartzea" dela dio.

Gaineratu du gaia epailearen esku dagoela eta azken hitza epaileak izango duela.

### oharrak

DEIALDIA
**> Kuboko II. txapa txapelketa jokatuko dute bihar**
Botilen txapak erabiliz jokatuko dute txapa txapelketa. Bihar izango da, zapatua, 18:00etan, gaztelekuko kuboan. Puntuazio bidez jakingo da zein den irabazlea; paretatik gertuen geratzen dena.

DEIALDIA
**> Xake txapelketan izena emateko epea zabalik dago**
Urriaren 30ean jokatuko da txapelketa, 09:00etan, gaztelekuan. Parte hartu gura duenak hilaren 28ra arte du izena emateko. Gaztelekuan bertan eman daiteke izena, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; edo 943 71 82 57 telefono zenbakian.

JAIALDIA
**> Trikiti jaialdirako txartelak salgai daude**
II. trikiti jaialdia egingo dute urriaren 30ean, 18:30ean, Santa Anan. Sarrerak salgai daude 10 euroren truke kultura etxean, Urbian eta Umerez tabernan.

DESAFIOA
**> Eskoriatzako frontoian desafioa bihar, zapatua**
Eskoriatzak desafioa bota die oñatiarrei eta aretxabaletarrei: *Gurie don/k degurixa*! Eskoriatzako frontoian, 17:00etan.

ZER DIO MARKEL IRIZAR TXIRRINDULARIAK?

ZER DIOTE ARANSGIKOEK?

**AZPIEGITURAK** > AUZOAK

# Roke Azkune auzoa berritu eta txukuntzea erabaki du Udalak

Orain dela 55 urte egindako auzoa izanda, nahiko hondatuta dago; bada, berritu eta arrapalak egokitu egingo dituzte, besteak beste


Roke Azkuneko eskailerak eta lurzorua egoera txarrean daude. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI
Roke Azkune auzoa eraberritzea onartu du Udalak. 50eko hamarkadan egindako auzoa da eta ordutik hona berritze-lan gutxi egin dituzte.

Agustin Beitia arkitekto teknikoak idatzi du proiektua eta Udalak onartu egin du lanok egiteko aurrekontua; orain, obra esleitu eta lanekin hastea falta da. Lourdes Idoiaga alkateak esan du urtea amaitu baino lehen hasiko direla eta lau hilabete iraungo dutela.

**LURZORUA BERRITUKO DUTE**
Lan hauek egingo dituzte: auzora sartzeko dauden eskailerak konpondu eta arrapalak egokitu; lurzoruko zoladura berritu; zelai inguruak txukundu eta ur kanalizazio berria jarri; eta argiteria berritu. Gainera, San Martindik jaus daitezkeen harriei eusteko euste-horma bat egingo dute aparkalekuan, San Martin azpian.

"Harri txikiz osatutako lurzorua da San Martingoa; eta dagoeneko oso hondatuta dago. Berritze beharra zeukan auzoak", azaldu du Idoiagak.

Orain dela 55 urte eraikitako auzoa denez, bertan bizi direnak ere adinez nahiko nagusiak dira; hala, beharrezko ikusi du Udalak auzoa berritu beharra.

**BEHARREN ARABERAKO LANAK**
"Auzokideek eurek aspaldi eskatutako obra da egin behar duguna", dio alkateak. Gaineratu du azkenaldian hainbat auzo eraberritzen dabilela Udala, eta beharren arabera jokatzen dutela. Hau da, okerren daudenak egiten dituzte lehenengo, eta gero ondorengoak.

DATUA
**72**
MILA EURO
Udalak 72.294 euro bideratuko ditu Roke Azkune auzoa eraberritzeko. Auzokideek eurek eskatu dute obra egitea.


ELKAR HEZI

## Holandako 12 ikasle daude gurean egunotan

Elkar Hezi ikastetxeak eta Holandako Mill-Hill College ikastetxeak elkartrukea egin dute egunotan. Hain zuzen, Holandako 12 ikasle eta bi irakasle dira gurean. Besteak beste, Arantzazu, Aitzulo, Donostia eta Bilbo bisitatu dituzte; eta bihar afaria egingo dute. Hainbat urte dira bi ikastetxeak harremanetan jarri zirena; bisita horren helburua bi herrian arteko berdintasun eta ezberdintasuna ikustea da. Oñatiko ikasleak martxoan joango dira Holandako Goirle herrira.



Antzezlaneko une bat. GLU-GLU

**KULTURA** > ANTZERKIA

## Salgai daude 'Anbotoko Mari' antzezlanerako sarrerak

Istorio magikoa izango da antzezlana, izaki mitologikoz betetako istorioa

**A.E.** > OÑATI

*Anbotoko Mari eta orrazi galdua* umeendako antzerkia ekarriko du Glu-glu Producciones taldeak datorren aste bukaeran herrira. Sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte kultura etxean hiru euroren truke.

Antzerkia izango da hilaren 31n, domeka, 17:00etan.

**IZAKI MITOLOGIKOAK**

Anbotoko Mari amama eta Odei mutiko gaztea izango dira protagonistak. Istorio magiko baten murgilduko dira, izaki mitologikoz betetako istorio baten. Behigorria, Basanderea eta Lamia agertuko dira, besteak beste, antzezlanean.

**KIROLA** > ESKUBALOIA

# Aloñako neskek bihar hasiko dute denboraldia Usurbilen

Idurre Elortzak izango du taldea zuzentzeko ardura; Benitoren laguntza izango du

Euskadiko senior preferente mailan jokatuko dute Aloña Mendiko neskek

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Aloña Mendiko neskei iritsi zaie liga hasteko ordua. Hain zuzen, bihar hasiko dute denboraldia Usurbilen aurka, 16:30ean, Oiardo kiroldegian.

Ez da edonolako denboraldia izango oñatiarrendako. Talde gaztea dute, eta entrenatzaile berria. Idurre Elortzak hartuko du taldea gidatzeko ardura. Elortza taldeko atezaina ere bada, gainera. Horregatik, partiduetan Francisco Benitoren laguntza izango dute.

**TALDEA DESAGERTZEAR**

Iazko taldetik bost jokalarik utzi dute taldea: Ainhoa Unamunok, Miren Zubeldiak, Nagore Goñik, Erika Arteagak eta Jone Larrañagak; baita Maitane Ruiz entrenatzaileak ere.

"Neska gutxi ginela ikusita, 12 jokalari baino gutxiago izanez gero taldea ez zela aterako esan ziguten", dio Elortzak. Hala, taldea osatu eta entrenatzaile izateko ardura hartu zuen Elortzak: "Ardura hartu dut nire burua gauza ikusten dudalako entrenatzeko; aurretik ere infantil mailan entrenatzailea izan naiz", dio Elortzak.

Guztira 17 jokalariz osatutako taldea izango du Aloña Mendik. Arrasatetik etorri da Eneritz Urrutia eta Bergaratik Marina Madariaga; taldea aurrez utzi zuten beste jokalari batzuk ere aurten berriro hasiko dira eskubaloian.

**LEHENENGO ITZULIAN, EUSTEA**

Ligari begira jarrita, Elortzak uste du Bizkaiko taldeak izango direla gogorrenak. Bihar, Usurbilen aurka jokatu beharko dute: "Talde berria da, ez dugu ezagutzen... uste dut Usurbil eta Ereintza, adibidez, samurrak izango direla".

Aloñako nesken helburua partiduz partidu joatea izango da. "Goiko postuei begira egoteko moduko talderik ez dugu, gazteak gara-eta", azaldu du Elortzak. Denboraldi-aurrean bi partidu jokatu dituzte: bat irabazi egin dute eta bestea galdu.

ESANAK

**"12 jokalari baino gutxiago izanez gero taldea ez zela aterako esan ziguten"**

**"Talde gaztea dugu; hortaz, ez gara goiko postuei begira egongo"**

**Idurre Elortza** > Entrenatzailea

**KIROLA** > KARATEA

# Zazpi garaikur lortu dituzte karatekek

Aloña Mendiko karate saileko bost ordezkari izan ziren Azkoitian jokatutako Gipuzkoako txapelketan

**A.E.** > OÑATI

Aloñako karatekek emaitza oso onak lortu zituzten joan den aste bukaeran Azkoitian jokatutako Gipuzkoako txapelketan.

**KUMITEAN HIRU GARAIKUR**

Kumite modalitateari dagokionez, hiru garaikur lortu zituzten: Xabier Gartziak hirugarren egin zuen 14 eta 17 urte bitarteko eta 70 kilo baino gehiagokoen taldean; Ricardo Arrizabalaga bigarrena izan zen 70 kilo baino gutxiago eta 18 urtetik gorakoetan; Ricardo Fernandez hirugarrena izan zen 70 kilo baino gutxiago eta 18 urtetik gorakoetan; eta Josu Choan hirugarrena izan zen 70 kilotik gorako eta 18 urtetik gorakoen taldean.

**KATAN EMAITZA ONAK**

Xabier Gartzia eta Ricardo Arrizabalaga hirugarrenak izan ziren katan euren mailan; eta Ricardo Fernandez, berriz, bigarren geratu zen.

Mikel Igartuak lan bikaina egin zuen 14 eta 17 urte bitartekoen mailan.



Aloña Mendiko bost karatekak lortutako garaikurrekin. ALOÑA MENDI

**Beteranuen futbol txapelketa**

**SAILKAPENA**

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **Txarrixak** | **3** | 1 |
| 2. **Kalañatasaray** | **3** | 1 |
| 3. **Zorrobero** | **3** | 1 |
| 4. **Sasquatch** | **3** | 1 |
| 5. **Albok** | **0** | 0 |
| 6. **Lozorromo** | **0** | 1 |
| **7. Paketinaikos** | **0** | 1 |
| 8. **Etxaixat** | **0** | 1 |
| 9. **Jai Ari** | **0** | 1 |

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Txarrixak-Jai Ari | 12-0 |
| Zorrobero-Paketinaikos | 5-3 |
| Etxaixat-Kalañatasaray | 4-9 |
| Lozorromo-Sasquatch | 0-1 |
| Albok | Atsedena |

**HURRENGOAK**

| | |
|---|---|
| Bundeswehr-Gaur Bai | zapatua, 13:00 |
| Txuskos-The Gibel Boys | zapatua, 14:30 |
| Indar 85-Dollygans | zapatua, 18:30 |
| Nandrolona-Ankarteko | zapatua, 20:00 |
| Xaguxar-Joxely | domeka,13:30 |


Sukalde eta bainuak
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ZELAIA OÑATI
www.zelaia.net
40 urte elkarrekin 1970-2010
LORTU 2010eko EROSKETA DEBALDE*


Altzariak
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

* 1.000 eurotik gorako erosketa bakoitzarekin hiru zenbakidun txartel bat eskuratuko duzu.
Horietako baten azken hiru zenbakiek "El niño" zozketako saritutakoarekin bat badatoz, 2010ean egindako zure erosketa debalde lortuko duzu!

**OSPAKIZUNA** > XIV. GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIA

# Hainbat erkidegotako jakiak eta dantzak ezagutzeko jaia

Gaztela eta Leon, Galizia, Extremadura, Errioxa eta euskal ordezkariak elkartuko dira domekan, Herriko Plazan, jatekoa eta edatekoa eskaintzeko


Extremadurako txitxi-burruntziak banatzen iazko jaian. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Hainbat erkidegotako kultura eta gastronomia ezagutzera emateko asmoarekin XIV. gastronomia eta folklore jaia egingo dute domekan (10:30-19:00), Zaraia Mendizale taldeak Udalaren laguntzarekin antolatuta.

**ERRIOXAKO JOTEN EMANALDIA**
Gaztela eta Leon, Extremadura, Galizia, Errioxa eta Euskadi ordezkatuko dituzten taldeak elkartuko dira gurean. Ongietorriaren ondoren (10:30) kalejira eta dantza erakustaldiak egingo dituzte herriko hainbat gunetan Galizia etxeko taldeak (Donostia) eta Gaztela eta Leongo San Fernando taldeak (Laudio). Errioxatik etorritako Voces del Ebro taldeak, ostera, jota emanaldia eskainiko du 13:00etan plazan.

Folklore ekitaldiak egin bitartean erkidego bakoitzeko gastronomia dastatzeko aukera daukate herritarrek: olagarroa, txitxiburruntziak, Errioxako ardoa, albariñoa… Aratz taldea izango da herriko ordezkaria eta txorizo, odoloste eta gazta mokadutxoak eskainiko ditu.

LEHIAKETA

## XVI. patxaran lehiaketa egingo dute domekan

Patxaran lehiaketa ere antolatu du Zaraiak. Parte hartu gura dutenek egunean bertan eroan behar dituzte etxean egindako patxaranak Herriko Plazan jarritako mahaira (11:00-14:00). Parte-hartzaile bakoitzari bi botila bakarrik onartuko dizkiote.

Epaimahaiko kideek 17:00etan dastatuko dituzte aurkeztutako patxaranak eta ondoren sari banaketa egingo dute (17:45). Edatekoarekin batera botilaren originaltasuna hartuko dute kontuan.

Patxaran onenak egiten dituzten lehenengo hirurei garaikurra eta diru-saria emango dizkiete. Eta saria jasotako patxaranak enkantean banatuko dituzte; hau da, diru proposamen onena egiten duenarendako hiru botilak. Gainerakoak herritarrei eskainiko dizkiete proba ditzaten.

**ERRETIRATUAK**

# Perretxikoen gaineko berbaldia hilaren 26an

Elkarrizketa sortzea da helburua, perretxikozaleak elkartuta, Basotxon

**M.A.** > ARETXABALETA
Erretiratuen Elkarteak antolatuta perretxikoen gainean egingo dute berba martitzenean, hilak 26, Basotxon (17:30). Bergarako Jose Mari Larrañaga aditua izango da bertan onddo eta perretxikoen nondik norakoak azaldu eta eztabaida sortzeko asmoarekin. Hona hemen landuko dituzten gai batzuk: non sortzen diren; zelan jaso, garbitu eta gertatu; zelan bereiztu mota ezberdinak; ilargiak duen eragina…

Berbaldiaren helburua erretiratuen artean elkarrizketa bultzatzea dela jakinarazi dute Basotxoko kideek, eta, bide batez, perretxikoekiko interesa dutenen artean taldea sortzeko lehenengo pausoak eman.

**ETXEBIZITZAK** > TXARAPEA IBILBIDEA

# Oraindik bukatu bako etxeen jabeek bilera egingo dute gaur


Txarapea ibilbidean egiten dabiltzan etxeak, oraindik bukatu barik. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA
Deba ibaiaren beste aldean Txarapea ibilbidean Bruesa eraikuntza enpresa egiten dabilen etxeen lanak geldi daude uztail ingurutik. Lanok udazkenean jarraituko zituztela esan zuten irailean, baina mugimendurik ez dagoela ikusita batzarra deitu dute etxe horien jabeek. Gaur egingo dute Arkupe kultura etxean (19:00).

**JABEAK KEZKATUTA DAUDE**
Etxe horietako jabe batek dio irailaren 1ean jakinarazi zietela Bruesa Construcciones enpresa egoera larrian zegoela: "Gu lasaitzen saiatu ziren, obrei irail bukaeran berriro ekingo zietela esanez". Gero, urriaren erdian jarraituko zituztela lanok esan zieten, baina oraindik geldi daude eta jabeak oso kezkatuta: "Guk bete dugu gure zatia: etxebizitzaren zenbatekoaren erdia ordainduta dago. Gainera, obren mugimendu falta pazientziarekin bizi izan dugu, baina informaziorik ezaren aurrean erantzun beharra daukagu. Horregatik, behar-beharrezkoa da jabeok batzea eta zer egin erabakitzea". Argibide gehiago gura duenak *Ene Eguzkiaren Zain* izeneko Facebook-eko taldera jo dezake, edo honako blogera: *http://eneguzkiarenzain.blogspot.com*.

**HARTZEKODUNEKIN ADOSTEN**
Bestalde, alkateak egunotan egin du berba Bruesako eraikuntza saileko ordezkari batekin eta jakinarazi dio borondate ona dagoela hartzekodunen, Kutxaren eta Bruesaren artean eta laster izango dela konponduta kontua. Uste baino luzeago jo du adostasuna lortzeko tramiteak, baina hartzekodunek sinatu beharreko zirriborroa egindа daukatela esan diote eta sinatutakoan hasiko dituztela lanok, "seguru asko datorren astean".

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

•**Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•**Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•**Kontalibilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • *www.zenbaki.es*

**KULTURA**

# '80 egunean' filmarekin zinema itzuliko da

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen emanaldia dute umeek domekan

**M.A.** > ARETXABALETA
Ekitaldi bi dituzte umeek egunotan Arkupe kultura etxean: bihar, Elsa Pamparacuatro ipuin kontalariak Euskal Herriko legenden berri emango die 3 urtetik gorakoei. Liburutegian da (11:30), debalde.

Domekan, ostera, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazo ezagunek *Konfetti* ikuskizuna eskainiko diete 4 urtetik gorakoei –sarrera, 4 euro.

**'80 EGUNEAN'**
Datorren astean zinema itzuliko da Zaraia aretora. Eguenean, zineklubaren barruan, *80 egunean* euskal filma emango dute (19:30). Hilaren 29an eta 30ean (22:00) eta 31n (19:30) *Centurión* izango da. Eta umeek *Toy Story 3* izango dute urriaren 31n (17:00).

> TXAPELKETA
## Bolo txapelketa egingo dute bihar, Muru Aldek antolatuta

Muru Alderen eskutik 23. bolo txapelketa egingo dute bihar (19:00) Iturrigorri pilotaleku alboko bolatokian.

Bolo jaurtiketa gustuko duen edonorendako dago zabalik txapelketa, elkarteko bazkide izan edo ez, eta izena aurrez eman behar da –10 euro–. Hona sariak: 1.ari, jasotako diruaren erdia; 2.ari, jasotakoaren %25; 3.ari, %15; eta 4.ari, %10. Lehenengo geratutako Muru Aldeko bazkideari ardo kaxa emango diote.

> IKASTAROAK
## Psikoterapia, yoga eta Thailandiako masaje tailerrak abian dira

Aredhana elkarteak dagoeneko abian ditu ikasturterako antolatutako ikastaroak: psikoterapia, –terapia taldea– egubakoitzetan (19:00-21:00), hamabostean behin; Thailandiako masajea, hilabetean zapatu baten (10:00-13:30); eta yoga, martitzen eta eguenetan goizez (10:00) eta arratsaldez (17:30 eta 20:00).

Argibide gehiagorako dei egin honako zenbakira: 616 96 57 95 (Encarna).

## oharrak

GAZTEAK
**> Monoziklo eta surf ikastaroak aste bukaeran**
Atxagazte gaztelekuak antolatuta monoziklo ikastaroa dute gazteek gaur, Haritz Iñurritegi arrasatearrarekin. Bihar, surf ikastaroa egingo dute Zarautzen –izenematea, gaztelekuan edo Gazteria Zerbitzuan, 12 euro.

IKASTAROA
**> Afrikako dantzen ikastaroa aste bukaeran Galartzan**
Seuruba dantza eta perkusio ikastaroa emango dute Senegalgo Diko Sarr eta Paty Thiounek bihar eta etzi Galartzako aterpetxean. Izenematea eta argibideak: 645 97 45 64 / 656 77 55 76 (arratsaldez) edo *kaisikuneles29@hotmail.com*.

ODOL ATERATZEA
**> Urriaren 29an odol ateratzea**
Udazkeneko odol ateratzeak egiten dabiltza eta azken saioa hilaren 29an da, egubakoitza, osasun etxean (16:15-20:00).

MERKATARITZA
**> Aretxarteren zenbaki sarituak**
Irraileko zenbaki sarituaren jabeak gaur arte du agertzeko epea –31.544–. Bihartik aurrera ordezko zenbakiarendako izango da –39.161.



Aratz elkarteko kideak, garaikurrak esku artean dituztela, Gorgonzolako film laburren lehiaketan. ARATZ ELKARTEA

**JENDARTEA** > GORGONZOLAKO NAZIOARTEKO FILM LABURREN LEHIAKETA

# Aratzekoen alaitasuna eta leialtasuna saritu dituzte Italian

Ikusleen txalo zaparrada jaso zuen 'Are-Baleko sekretoa' filmak

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Gorgonzolako film laburren lehiaketan (Italia) izan dira Aratz elkarteko kideak *Are-Baleko sekretoa* filma aurkezten, eta oso pozik itzuli dira. Laugarren postua eskuratu zuen aretxabaletarrek egindako filmak, eta lehiaketako zuzendariaren aipamen berezia ere jaso zuten: "Gure alaitasun eta fideltasunagatik saritu gaituzte", dio Jokin Antxia Aratzeko kideak. Hala, pozik ageri dira argazkian Juan Carlos Barkero eta Iker Arexolaleiba garaikurrak eskuetan dituztela.

**IKUSLEEN TXALO ZAPARRADA**

Aratz elkarteko kide eta senideak izan dira Italian film laburra aurkezten; 38 bat lagun. Aretxabaletarren filma zapatu ilunkeran eman zuten, lehiaketako bigarren jardunaldian, eta bien bitartean inguruko parajeak ezagutzen ibili ziren: egubakoitzean, Turin eta Gorgonzola; eta zapatuan, Milan. "Gorgonzolara ailegatutakoan Bussero herriko alkatea zain geneukan ongietorria egiteko; lehiaketan laguntzen duen herria da Bussero", azaldu du Antxiak.

Urduri joan ziren *Are-Baleko sekretoa* filmaren aurkezpenera: "Ikusleek disfrutatu egin zuten gure filmarekin eta txalo zaparrada jaso genuen". Sari banaketa iritsitakoan finalisten taldean sartu ziren, baina hiru onenen artean sartzeko atarian geratu. Hala ere, oso pozik itzuli dira alaitasun eta leialtasunaren sariarekin eta ahaztu ezinezko lau egun bizi izan dituztela aitortu dute.

## Fruta-dendara irteera, fruta non erosi jakiteko

Kurtzebarri eskolako 5 urteko neska-mutikoak Durana kaleko fruta-dendan izan ziren martitzen eguerdian. Egubakoitz guztietan eroaten diete denda horretatik gelara fruta eta oraingoan bisita itzuli diete umeek. Fruta non saltzen duten eta udazkenean zeintzuk jan daitezkeen ezagutzera joan ziren, eta, bide batez, erosketak egin zituzten: laranjak, kiwiak, sagarrak, granadak...



MIRARI ALTUBE

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Garbittu
Santa Kruz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Arropa garbiketak



Domekakoa ez da omenaldi bakarra izango; irailaren 24an Udalaren esker ona jaso zuten egoitzan. ESKORIATZAKO UDALA

**OMENALDIA** > MESEDETAKO AMA

# Etzi omenduko dituzte zaharren egoitzan egondako moja guztiak

Antolatzaileek 150 lagun espero dituzte bazkaltzeko; horietatik, 15 lehengo ospitaleko eta oraingo zaharren egoitzan egondako mojak dira

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskoriatzarrek etzi, domekan, egingo diete agurra 98 urtez Karitateko Mesedetako egoitzan egon diren mojei. Mertxe Armendariz ekimen horren antolatzaileetako batek jakinarazi digu 150 lagun inguruk eman dutela izena. Omenaldi xume baina berezia izango da. Lehenengo, meza izango dute San Pedro elizan; 12:30ean hasiko da elizkizuna. Jarraian, guztiak elkartuko dira, bazkari ederraz gozatzeko. Honako hau izango dute jateko: menestra, masaila saltsan eta hojaldre-tarta izozkiarekin.

Bazkaldu ostean, ekitaldian dauden mojek oparitxo bana jasoko dute, herriaren alde egin duten lana eskertzeko. Bazkarian egoterik ez dutenak, dena dela, ez dira esku hutsik geratuko; posta bidez bidaliko diete haiei oparitxoa.

**CORUÑATIK ETA SANTANDERTIK**

Horren harira, Armendarizek azaldu digu lehengo ospitaletik eta gero zaharren egoitzatik pasa diren 31 mojei bidali dietela omenaldirako gonbita. Eskoriatzarrak hauxe dio: "Horietatik, 15 bat izango ditugu gure artean domekan; bat Coruñatik etorriko da eta beste bat Santandertik. Gainerako beste asko ezin izango dira etorri, urte asko dituztelako".

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO ERRETIRATUEK?

ZER DIO MIKEL GONZALEZ REALEKO JOKALARIAK?

**GAZTEAK** > EINGEINKE

## 'Geuria don/k Degurixa' eta garagardo festa daude bihar

Esandako bi ekimenak 16:00etan hasiko dira herriko pilotalekuan

**M.B.** > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, garagardo gesta eta *Geuria don/k Degurixa* delako ekitaldiak egingo ditu Eingeinkek. 16:00etan hasiko dira herriko pilotalekuan.

Uztailean erabakiko dute Degurixa Aretxabaleta, Oñati edo Eskoriatzakoa den, baina bitartean giroa berotzen joateko gainerako herritakoei gonbidapena egin diete biharko desafiorako. 17:00etan izango da desafioaren inaugurazioa eta jarraian, probak egingo dituzte. Besteak beste, soka-tira, oliba hezur jaurtiketa, irrintzi lehia eta beste hainbat proba egingo dituzte.

Ordubete lehenago hasiko da garagardo festa. Garagardoak hartzeaz gain, pintxoak ere jan ahal izango dira arratsalde osoan. Musika ere egongo da; 19:00etan DJ Elviscainoren emanaldia hasiko da.

> KULTURA

### Salgai jarri dituzte Aitzorock jaialdirako sarrerak 'Kulturalive. com' webgunean, 13 euroren truke

Dagoeneko *on-line* salgai jarri dituzte Aitzorock jaialdiaren bigarren ediziora joateko sarrerak, *kulturalive.com* webgunean. 13 eurotan saltzen ari dira horiek. Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, abenduren 11n egingo da jaialdia kiroldegian, 20:30ean hasita. Lau taldek joko dute: Gatibuk disko berriaren aurkezpen kontzertua eskainiko du; horrez gain, Zea Mays, Amaiur eta Frantziako Pastors of Muppets Brass Band izango dira.

**KULTURA**

## Dantza saio ludikoak hasiko dira ostera ere

**M.B.** > ESKORIATZA

Aurten ere dantza saio ludikoak izango dira, hilero. Hain justu ere, bihar, zapatua, hasiko da Patxi Montero irakaslea eskolak ematen, herriko pilotalekuko gimnasioko gelan, honako ordutegian: 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Euskal Herriko eta Europa osoko dantza zirkularrak eta plazako dantzak ikasi ahal izango dira. Monterok gogorarazi du saio irekiak direla, eta, hortaz, edozein pertsona joan daitekeela.

**MAIATZAREN 28RA ARTE**

Esan bezala, hilero egiteko asmoa dago; gehienetan, laugarren zapatuan izango dira: urriaren 23an, azaroaren 27an, abenduaren 11n, urtarrilaren 29an, otsailaren 26an, martxoaren 26an, apirilaren 16an eta maiatzaren 28an.

Interesa dutenek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Harremanetarako, *mundukodantzak@gmail.com* helbide elektronikora idatz daiteke edo 943 78 90 70 telefono zenbakira deitu.

**oharrak**

UMEAK

**> PlayStation lehiaketa gaur arratsaldean Tortolisen**

Egubakoitzetan egiten dituzten ekimen berezien harira, PlayStation lehiaketa izango dute gaur Tortolis ludotekan, 18:00etan.

GAZTEAK

**> Oraingoan egun osoko irteera egingo dute**

Bihar, zapatua, egun osoko irteera egiteko asmoa dute herriko gaztelekuek.

KIROLA

**> Kirol hitzordu bi asteburuan**

Asteburuan hitzordu bi daude Intxaurtxueta kiroldegian: bihar, zapatua, Ohorezko Ligako areto-futbol partidua jokatuko dute etxekoek Laudioko Irercam taldearen kontra, 16:00etan. Norgehiagoka hori amaitzean, Euskal Ligako areto-futbola izango da, Eskoriatza eta Oiarso artean.

TEKNOLOGIA BERRIAK

**> KZgunea eguaztenetan**

Urria ezkero, eguaztenero dago Aitor Madrid dinamizatzailea KZgunean, honako ordutegian: 09:00etatik 13:00etara.

ERRETIRATUAK

**> Memoria azkartzeko tailerra**

Olazarrek estimulazio kognitiboaren gaineko kurtsoa antolatu du. Izena eman nahi dutenek urriaren bukaerara arte dute horretarako aukera.

**JENDARTEA** > IRTEERA

# Antzuola eta Bergara arteko ibilaldia egingo dute etzi, Sagastitik irtenda

Hainbat proiektu eta lan bertatik bertara ikusteko aukera eskaintzen du ibilaldiak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA
Antzuola eta Bergara arteko zatia oinez egingo dute etzi, domeka. Sagastitik irtengo dira eta aukera izango dute bi herrien artean dauden hainbat azpiegitura handi eta ondare bertatik bertara ikusteko.

"Bidegorri berria ezagutzea da asmoa. Horrekin batera, ikusiko ditugu bertatik pasatzen diren azpiegiturak; besteak beste, Beasain-Bergara autobidea eta uren kolektorea", adierazi du Jose Mari Iturbek, Nekazaritzako zinegotziak.

**ITURRIAK ETA MUGARRIAK**
Antzuolako ondarea ikusteko aukera ere egongo da: Aldabe iturria, Burbinkutz mugarria, Ilunpeko iturria eta Bonbulu indarretxeko ubideak ikusiko dituzte. "Lehengo urak eta hartuneak ezagutuko ditugu", dio Iturbek.

Ibilbidean zehar Jose Mari Iturbek berak emango ditu azalpenak.

**SEI KILOMETROKO IBILBIDEA**
Sagastitik Bonbulurainoko zatiak hiru kilometro ditu; hortaz, joan-etorria sei kilometroko ibilbidea izango da. Edonork egiteko moduko ibilaldia izango dela adierazi dute antolatzaileek.

09:00etan irtengo dira, Sagastitik. Eta ez da izenik aurretik eman behar, bertan agertzea nahiko izango da irteeran parte hartzeko.

Ez da lehenengo aldia horrelako ibilaldiak antolatzen dituztena; aurrez, Antzuolako iturrien ibilbidea eta trenaren bidea ere egin dituzte.

**BIDEGORRIA, AMAITZEAR**
Bidegorria ia amaituta dago; oraindik, argiak eta beste zenbait detaile jartzea falta da. Laster amaituta egongo da, eta herritarrendako erabilgarri.

**KIROLA** > MENDIA

## Gorbeiako irteerarako izenematea zabalik dago

Nagusiek 10 euro ordaindu behar dituzte eta gaztetxoek, 5 euro

**A.E.** > ANTZUOLA
Arrola mendi taldeak Gorbeiara irteera egingo du datorren domekan, hilak 31. Egun osoko mendi irteera izango da.

Interesatuek izena eman beharko dute aurrez. Horretarako, Arrolak Olaranen duen bulegora (3. bilera gela) joan beharko dute hilaren 27an 19:00etatik 20:30era. Bestalde, telefonoz ere eman daiteke izena; horretarako, Arrola elkarteko presidenteari deitu behar zaio –Iker Manso– 635 205 841 zenbakira hilaren 27a baino lehen.

**IRTEERA 08:30EAN OLARANEN**
Irteera izango da 08:30ean Olaran parean. Arrola mendi taldekoek gogorarazi nahi dute zapatutik domekarako gauean ordua aldatuko dela.

Bada, nagusiek 10 euro eta gaztetxoek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Gaineratu dute mendi ibilaldia aproposa dela umeekin joateko; hortaz, herritarrak animatu gura dituzte parte har dezaten.

### oharrak

KIROLA
**> Pala jokalariek partidua izango dute gaur 19:30ean**
Olalde elkarteko pala pilotariek partidua izango dute gaur, 19:30ean. Altzatarrak taldearen aurka jokatuko dute.

ERAKUSKETA
**> Sergio Morenok Brasilen egindako bidaiaren berri emango du**
*Antzuolarrak munduan zehar* programaren barruan, Sergio Morenok Brasilen egindako bidaia kontatuko du. Olaranen izango da, hilaren 28an, 18:30ean.

LEHIAKETA
**> Argazki lehiaketan izena emateko azken eguna azaroaren 5a**
Aurtengoa XVI. edizioa izango da eta Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte har dezake lehiaketan. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a da.

> FUTBOLA
**Hiru partidu jarraian irabazita sailkapeneko hirugarren postuan jarri da Antzuola**

Denboraldi hasiera ona egiten dabiltza Antzuolako mutilak. Zapatuan 1-0 irabazi zuten Oriokoren aurka –gola Josu Zubikaraik sartu zuen–. Modu horretan, sailkapeneko hirugarren postura salto egin dute antzuolarrek.

Aste bukaerari begira, Elgoibarren aurka jokatuko dute Juanina Garairen mutilek. Partidua zapatuan izango da, 16:30ean, Elgoibarko Mintxeta futbol zelaian.



Edurne Egaña eta Pedro Iturbe aurkezpen ekitaldian. A.E

**JENDARTEA** > KUDEATUZ PROGRAMA

## Armarriaren gaineko prozesu parte-hartzailea aurkeztu dute

Diputazioaren Kudeatuz programaren bitartez landuko dute armarriaren 12 kanoien gaia

**A.E.** > ANTZUOLA
Edurne Egaña Foru Administrazioko diputatuak eta Pedro Iturbe alkateak aurkeztu dute prozesu parte-hartzailea Udalean. Urriaren 26an hasiko dute prozesua; aurkezpen bilera izango da 19:00etan Olaran etxean eta parte hartuko dute zozketa bidez aukeratutako 15 herritarrek eta herriko elkarteetako ordezkariek. Gainerako herritarrek, berriz, *www.antzuola.com* webgunearen bitartez prozesuan parte hartzeko aukera izango dute.

**BI TALDETAN BANATUTA**
Lehenengo batzarra guztiek elkarrekin egingo dute eta Xabier Kerexeta historialariak azalduko du gaia, objektiboki. Ondorengo biak bi taldeek euren aldetik egingo dituzte. Azkeneko batzarrean berriro elkartuko dira, adostasunera iristeko asmoarekin. Politikoak talde horietatik kanpo geratuko dira.

**GAI BEREZIA DA**
Alkateak adierazi zuen gai berezia dela: "Kuriosoa da herri batek zalantzan jartzea armarria eta sinboloak". Foru diputatuak esan zuen Kudeatuz programaren bitartez "kultura politiko berria" sortu gura dutela.

**Arin Jatetxea**
Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak
**ETXEKO BEREZITASUNAK:**
**Buztana eta txuleta (zaharrarena).**
Enkarguak ere hartzen ditugu.
Astelehenetan eta martitzenetan itxita
Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA
***Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak***
**Kalebarren, 1.**
**ANTZUOLA**
**Tf. 943 76 64 34**



Unai Fernandez de Mendia ingeniaria azalpenak ematen, eguazteneko bileran. 40 lagun inguru batu ziren udaletxean. E.M.

**UDALA** > HIRIGINTZA

# Plan Orokorra: abenduaren 13ra arte jasoko dituzte alegazioak

## Martitzenero kontsultak egin ahal izango dira udaletxean, aurretik txanda eskatuta

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO
Eguaztenean 45 lagun inguru batu ziren udaletxean, Plan Orokorraren gainean Udalak deitutako bileran. Stoa enpresako Unai Fernandez de Mendia industria ingeniari teknikoak eman zituen azalpen gehienak, Asier Agirre alkatearen eta Stoa enpresako beste hainbat teknikariren laguntzarekin.

Aramaioko udalerriko hirigintzako Plan Orokorrari hasierako onarpena eman zion udalbatzak urriaren 8an. Orain, alegazioak aurkezteko epea jarri dute abian; hain zuzen ere, abenduaren 13ra arte izango da alegazioak aurkezteko epea zabalik. Bien bitartean, jendaurrean dago ikusgai Plan Orokorra, osoko bilkuren aretoan, eta dokumentua *www.aramaio.org* webgunean ere eskuragarri dago. Herritarrek aukera izango dute martitzenero kontsultak egiteko udaletxean: Stoa enpresako eta Udaleko teknikariak izango dira bertan. Aurretik txanda hartzea eta kontsultatu beharreko gaia aurreratzea gomendatu dute. Interesatuek udaletxera, 945 44 50 16 telefonora deitu beharko dute txanda hartzeko.

**2011KO MARTXOA**
Aramaioren garapenerako eraikuntzan, azpiegituretan, kale eta bideetan, ekipamenduetan, instalazioetan eta beste hainbat arloren inguruan gauzatu beharreko jardueren plangintza egin dute Stoa enpresakoek. Plan Orokorrari 2006an ekin zioten, eta, behin-behineko onarpena jaso ondoren, behin betiko onarpena 2011ko martxorako aurreikusita dago.

Eguazteneko bileran aurreikusitako etxebizitzek sortu zuten kezkarik handiena hainbat herritarren artean. Plan Orokorraren arabera, etorkizunerako, Ibarran 152 etxe egiteko aukera jasotzen da eta Olaetan 19. Auzoen hazkundeak baldintza bereziak ditu.

**LEHIAKETA** > DEIALDIA

# Orri markagailu lehiaketaren bosgarren ekitaldia deitu du Zuiako Koadrilak

**E.M.** > ARAMAIO
Zuiako Koadrilak orri markagailu lehiaketa deitu du. Adinaren arabera lau maila egingo dituzte: kimuak (2-10 urte), umeak (11-14 urte), gazteak (15-17 urte) eta helduak (18 urtetik gorakoak). Lanak folio edo kartulinan aurkeztu behar dira, 4,5x21 cmko neurrian, oinarri baten itsatsi gabe. Kategoria bakoitzeko hiru sari banatuko dituzte: 150 euro irabazleari, 100 euro bigarrenari eta, azkenik, hirugarren saria, 60 eurokoa.



Orri markagailuak azaroaren 19ra arte jasoko dituzte. GOIENKARIA

**SARIAK, ABENDUAN**
Lanak aurkezteko epea azaroaren 19ra arte izango da zabalik. Aramaioko liburutegian, udal bulegoetan edo Zuiako Koadrilaren bulegoan jasoko dituzte lanak. Abenduaren 10etik aurrera irabazleen izenak Zuiako Koadrilako webgunean (*www.cuadrillazuia.com*) emango dituzte aditzera.

Orri markagailu lehiaketaren bosgarren ekitaldia da aurtengoa. Argibide gehiago 945 43 01 67 telefono zenbakian jaso daitezke.

> JENDARTEA

### Urriaren 30eko Erretiratuen Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude 8 eurotan

Datorren zapatuan, urriaren 30ean, Erretiratuen Eguna ospatuko da Aramaion. Ohi denez, herri bazkaria izango da kiroldegian. Txartelak 8 eurotan salgai daude. Auzo-alkateengana jo edo bestela Vital Kutxan, Euskadiko Kutxan edo udaletxean eman dezakete izena interesatuek. Bazkalostean, erretiratu nagusiei omenaldia egingo zaie eta sarien zozketa izango da.

> NEKAZARITZA

### Baserri Barri egitasmoaren barruan, kontsumo taldea osatzeko bilera egin zuten aurreko astean

Kontsumo taldea sortzekotan dira Aramaion. Baserritarren eta kontsumitzaileen arteko elkarlana bultzatzea da asmoa. Kontsumo taldeko kideek, diru kopuru baten truke, Aramaion ekoiztutako elikagaiz betetako saski bat jasoko dute astean behin, garaian garaiko produktuekin. Aitor Larrañaga azkoitiarra dabil dinamizatzaile lanetan. Telefonoz (625 70 63 74) zein e-postaz (*larraaitor@hotmail.com*) jar daiteke harremanetan harekin. Argibide gehiago udaletxean, 945 44 50 16 telefonoan.



Garaian garaiko produktuen kontsumoa bultzatu nahi da.

> ARGAZKILARITZA

### Udalaren argazki lehiaketerako lanak urriaren 30era arte jasoko dituzte udaletxean

Udalak antolatutako argazki lehiaketarako lanak urriaren 30era arte jasoko dituzte. Urtaro bakoitzeko irudi onena 100 eurorekin sarituko dute eta sari nagusia 200 euro da. Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkez daitezke lehiaketara, eta, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. Argibide gehiago udaletxean jaso ditzakete interesatuek.

> ERRETIRATUAK

### Alaiak erretiratuen elkarteko kideak Guardiara zapatuan eta Gernikara astelehenean

Alaiak erretiratuen elkarteko 30 bat lagun Guardiara joango dira bihar, zapatua, Arabako beste hainbat elkartetako ordezkariekin egun pasa egitera. Eltziegora bisita izango dute lehenbizi eta ondoren Guardian bazkaria. Era berean, astelehenerako, hilaren 25erako, Gernikara joateko irteera antolatu dute Alaiakeko lagunek. 55 lagun joango dira. Bazkaria Lekeition egingo dute astelehenean.

**KULTURA** > MARGOLARITZA

# Pintura lehiaketako lanak ikusteko azken eguna gaur

**E.M.** > ARAMAIO
Joan den martitzenean, urriaren 12an, jokatutako Aramaioko pintura lehiaketako lanak ikusteko azken eguna izango da gaur, barikua. 55 lagun izan ziren lehian (27 gaztetxo tartean) eta nagusietan Jose Reyes leioarrak eraman zuen lehen saria: 700 euro eta trofeoa, hain justu. Bigarren saria eta hirugarrena Carlos Espiga bilbotarrak eta Jose Miguel Arranz erandioatarrak eraman zituzten; hurrenez hurren, 500 eta 400 euro jaso zituzten. Herriko onena nagusien mailan Maider Aldai izan zen. 150 euro jaso zituen Aldaik.

**MARIA VILLALBAK LEHEN SARIA**
16 urtetik beherakoen artean, berriz, Maria Villalba aramaioarra izan zen irabazlea; Portugaleteko Ainhoa Cobosek eraman zuen bigarren saria eta Mariana Garcia hirugarren tokian sailkatu zen. Gaur, barikua, 18:00etatik 19:00etara izango da zabalik Sastiñako aretoa.

**ELGETA** > OSPAKIZUNA

# Pintxoak, perretxikoak eta argazkiak plazara

Udazkeneko loreak omen dira eta domekan perretxikoak batzeko irteera eta erakusketa egingo dituzte, beste batzuen artean



Perretxiko erakusketa prestatzeko elkartu dira hainbat elgetar. L.Z.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Domekan perretxikoak izango dira protagonista. Aurtengoa, oraingoz, ez omen da perretxikotarako urte ona, baina aste bukaeran erakusketa ipintzeko konpromisoa hartu dute hainbat herritarrek. "Txarrak, behintzat, atera dira, eta ipiniko ditugu ikusgai", adierazi du asteon Benedikta Bergaretxek. Itxura oneko perretxikoak jarri ohi dituzte ikusgai eta azken egunera arte ibiliko dira basoan perretxiko bila. Helburua da ahalik eta barietate handiena jendaurrean jartzea.

Gaztetxoen artean perretxiko zaletasuna bultzatzeko ahalegina ere egingo du Udalak; hala, 10:00etan plazatik abiatuko den irteera antolatu dute. Erakusketa 11:30ean zabalduko dute, eta, urtero moduan, perretxikoak katalogatuta egongo dira onak edo txarrak diren adierazita.

**PINTXO ETA ARGAZKI LEHIAKETAK**

13:30erako, berriz, sari banaketa ekitaldia iragarri dute. Elgetako III. pintxo lehiaketa jokatuko da domekan eta herriko hiru elkartetako ordezkariek epaimahai lanak egingo dituzte ostalariek aurkeztuko pintxoen artean goxoena aukeratzeko. Elgetaklik lehiaketako argazki onenaren saria ere ordu berean emango dute. Azkenik, pintxoekin lotuta, aurten ere euro baten egongo dira tabernetan.

EUSKADIKO HIRU TXIRLO TXAPELKETA

## Bigarren jardunaldia bihar Bolatokian

Aurreko zapatuan Mallabian jokatutako lehenengo tiraldian 65 bolari inguru elkartu ziren eta kopuru antzerakoa espero dute biharko Elgetan. Antolatzaile lanetan diharduen Sebastian Arantzabalek esan du bost bat elgetar arituko direla tiraldi horretan. Saioa 17:00etan hasiko da eta izenematearen prezioa bost euro da. Euskadiko txapelketa lau jardunalditan jokatuko da eta azkena Azkoitian izango da azaroaren 13an.

4 t'erdiko pilota txapelketa

## Gaur, barikua, eta etzi pilota txapelketako bigarren jardunaldiko partiduak jokatuko dira

**L.Z.** > ELGETA

20 bikotek eman dute aurten izena herri mailako 4 t'erdiko pilota txapelketan; 40 urtetik gorakoen txapelketan zazpi bikotek dihardute eta 40 urtetik azpikoetan, berriz, 13 bikote ari dira nor baino nor gehiago. Aurreko aste bukaeran bederatzi norgehiagoka jokatu ziren eta honakorako beste bederatzi daude iragarrita.

| LEHENENGO JARDUNALDIKO EMAITZAK | |
|---|---|
| **1.** Zubiaurre-Ugarteburu / Ibarluzea-Telleria | **18-22** |
| **2.** Peñalver-Bouzas / Cantabrana-Irazabal | **22-03** |
| **3.** Alkorta-Bolinaga / Larrea-M. Elkoro | **14-22** |
| **4.** Elortza-Zenitagoia / Arrazola-Ormaetxea | **22-03** |
| **5.** Goenaga-Arantzabal / Morales-Zenitagoia | **22-09** |
| **6.** Erostarbe-Arizmendiarrieta / Osoro-Bolinaga | **22-10** |
| **7.** O. Askasibar- E. Elkoro / H. Gallastegi- O. Billa | **22-10** |
| **8.** K. Erostarbe-Billa / I. Irazabal- G. Bolinaga | **22-10** |
| **9.** Ramos-Salaberria / Retolatza-Larrañaga | **09-22** |

| GAURKO PARTIDUAK (HILAK 22, 20:00ETAN) |
|---|
| **1.** J. Bolinaga-I. Izagirre / P. Larrea-M. Elkoro |
| **2.** L.A. Alkorta-G. Bolinaga / A. Morales-F. Zenitagoia |
| **3.** A. Elortza-O. Zenitagoia / M. Irazabal-I. Ibaibarriaga |
| **4.** K. Erostarbe-E. Garate / H. Gallastegi-K. Odriozola |
| **DOMEKAKO PARTIDUAK (HILAK 24, 10:30EAN)** |
| **1.** K. Goenaga-A. Arantzabal / A. Ibarluzea-A. Telleria |
| **2.** O. Askasibar-E. Elkoro / D. Cantabrana-I. Irazabal |
| **3.** G. Arrazola-M. Ormaetxea / S. Ramos-E.Salaberria |
| **4.** J. Irazabal-I. Etxaniz / I. Retolaza-J. Larrañaga |

**ELGETA** > ELGETA 2020

# Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela esan dute

Hiru lan batzar antolatu dituzte; lehenengoa azaroaren 4rako

**L.Z.** > ELGETA

Atzo, Udalak Aldundiaren *Kudeatuz* programaren bitartez martxan jarriko duen *Elgeta 2020* hausnarketa prozesua aurkeztu zuten Espaloian. "Hamar urte barru nahi dugun Elgeta marraztu nahi dugu", adierazi dute udal arduradunek. Orain, helburua da Udalean landutako zirriborroa herritarrekin kontrastatzea, proposamen zein ekarpen berriak jasotzea eta lehentasunak zehaztea.

**HAINBAT BIDE**

Hiru batzar egingo dituzte: azaroaren 4an eta 18an eta abenduaren 2an. Batzar irekiak izango dira eta herritar guztiak daude gonbidatuta, baina komeni da izena ematea udaletxean. Parte hartzeko, gainera, bestelako bideak ere badaude; herritarren postontzian (udaletxeko sarreran), udal webgunean, *danonartian@elgeta.net* edo Facebooken bitartez, *Elgeta 2020* orrian.

> IKUSKIZUNA

### Anthony Blake bosgarren aldiz Elgetako antzokian

Etorri den guztietan bete du aretoa, eta oraingoan ere bi emanaldi egingo ditu; bihar, zapatua, 22:30ean hasita eta etzi, domekan, 20:00etan hasita. *Blake más cerca* delako ikuskizunarekin dator. "Beldurrarekin, gertakari paranormalekin eta arimekin zerikusia duen ikuskizuna egingo dut", esan digu adimenaren magoak. Sarrerak salgai daude Espaloian: 18 euro, eta 15 euro bazkideek.



Anthony Blake. ANTHONY BLAKE

> ZERBITZUAK

### Ludoteka zerbitzua astelehenean zabalduko dute eta gaztelekua, berriz, barikuan

Atzeratu egin da aurten bi zerbitzu horien ikasturte hasiera. "Udalaren apustua izan da zerbitzu horiek hobetzea, eta bina hezitzaile arituko dira aurten", esan du Oxel Erostarbe alkateak. Bi zerbitzuak azarotik maiatzera bitartean egongo dira zabalik.

> ERRETIRATUAK

### Podologoak hilaren 24an, eguena, egingo du urriko kontsulta herriko erretiratuendako

Hileroko hitzordua da eta urrikoa datorren astean egingo du podologoak. Eguenean 15:00etan hasiko da kontsulta pasatzen, eta, betiko moduan, beharrezkoa da aurrez txanda hartzea. Interesatuek Nati Arrietari deitu behar diote, 943 76 80 77 telefono zenbakira.

**LEINTZ GATZAGA** > ORDENANTZA FISKALAK

# Uraren tasa igoko da gehien

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Astelehenean egindako osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak ordenantza fiskalak. Hala, erabakita utzi dute 2011ko urtarriletik aurrera zelako igoera izango duten udal zergek eta tasek.

Orokorrean KPIren igoera aplikatuko diete; hau da, %2,1. Bada, ondasun higiezinen gaineko zerga eta automobilak izatearren ordaindu beharreko tasa %2,1 igoko dituzte. Etxean obra txikiak egitearren ordaindu beharrekoak ez du izango aldaketarik –obraren aurrekontuaren %5– eta pilotalekua erabiltzeko tasari ez diote igoerarik ezarri, oraingoz. Egiten dabiltzan berritze lanak bukatutakoan pilotalekuaren erabilera zelan arautu erabakitzekotan geratu da Udala.

Uraren tasaren igoera handiagoa izango da: %7,8. Horren arrazoia da iaz ez ziotela igoerarik aplikatu, eta, Ur Kontsortzioak Udalari kobratzen diona gero eta gehiago denez, tasa igo beharrean zegoela. Zaborraren ardura, ostera, Debagoieneko Mankomunitateak dauka eta egunotan da erabakitzekoa zenbateko igoera ezarriko dion; han adostutakoa onartuko du Gatzagako Udalak.

**HILTEGIARI BAIETZA**

Bestalde, Debagoieneko hiltegiaren gaineko erabakia hartu behar zuten, eta baietza eman zioten udalek osatutako elkarte publikoa sortzeari, Zubillagako hiltegia kudea dezan.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

Xabin Arriola > Tafydeko kroseko antolatzailea

# "Hemen badira izen handiko lasterketak, baina gurea gauez da"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Gaur, egubakoitza, 20:00etan egingo dute Tafydeko II. gaueko krosa, Arrasaten. Irakurle, oraindik garaiz zaude GOIENKARIAren errepaso azkarra egin, irakurketa sakonagoak biharko utzi, korrika egiteko zapatilak jantzi eta Ferixalekura joateko. Bertan hasiko dute gaueko krosa, eta antolatzaileak 19:50ak arte izenak hartzen egongo dira; hantxe egongo da Xabin Arriola.**

**Gorputz eta ekintzen sustapeneko zikloko ikasle eta irakasleek (Tafyd) bigarren urtez antolatuko duzue gaueko krosa. Ze helbururekin?**

Iaz lasterketa lehenengoz antolatu genuenean helburuetako bat izan zen jendeari helaraztea ibarrean badela kirolera bideratutako ikasketa ziklo bat, urtero 20-25 ikasle izaten dituena, eta etorkizunean kirol monitore bilakatuko direnak.

Tafydeko ikasketak ezagutarazi nahi genituen, eta, kirol arloan mugitzen garenez, kirol hitzordu bat antolatzea bururatu zitzaigun; izan ere, kirol hitzordu bakarra ere ez dago soberan.

**Debagoienean badira hainbat herri lasterketa. Baina gaurkoa gauez da.**

Iaz garbi geneukan gurean badirela *caché* handiagoko probak, eta guk zerbait berezia egin behar genuela. Ibili ginen pentsatzen Urkulun gauez lasterketa bat antolatzea, baina azkenean Arrasateko gaueko krosa egitea erabaki genuen. Urkulukoa polita izan zitekeen, baina erronka handiagoa zen, han ez dagoelako argirik.

**Zuek, behintzat, antolaketa lanetarako ez duzue arazorik izango. Ikasleak jarriko dituzue lanean...**

[Barre] Bai, izango dugu euren laguntza, bai. Ez dugu ikasgai moduan hartzen, baina balio du ikasleen formaziorako, besteak beste, kontura daitezen horrelako lasterketa bat antolatzeak zer lan dakarren, planifikazioa...

**Egubakoitz arratsaldea izanda, kaleetan ibiliko da jendea lasterkariak animatzen.**

Bai; iaz egindako balorazioaren barruan jaso genuen proban oso giro polita izan zela, jende asko egon zela lasterkariak animatzen; korrikalari gehienek eskertu egiten dituzte animu horiek, baina bat edo beste etorri zitzaigun esaten lotsa galanta pasatu zuela jendaurrean korrika ibili zelako. Bada kirola anonimotasunean praktikatu nahi duenik ere.

**Aurrez egon da izena emateko modua, baina gaur bertan ere badago lasterketan parte hartzeko modua.**

Bai, bai. Iaz, lasterketa hasi baino hamar minutu lehenago izenak hartzen ibili ginen, eta badakigu gehienok azken momentuan animatzen garela horrelakoetara. Horrenbestez, gaur 19:50ak arte izenak hartzen ibiliko gara, Ferixalekuan bertan.




Xabin Arriola, kroseko kartela eskuan, aste barruan. XABIER URTZELAI

> **"Iaz proba ostean egindako balorazioan jaso genuen lasterketan giro oso ona egon zela"**

> **"Gurean badira izen handiko lasterketak, eta guk zerbait berezia egin nahi genuen"**

**Arrasate-Oñati proban 300 korrikalari izan ziren eta Soraluze-Bergararako 500 lagun espero dituzte, azaroaren 6an. Geroago eta jende gehiago dabil korrika?**

Orokorrean, jendeak geroago eta kirol gehiago egiten du, ez bakarrik korrika. Ikusi, bestela, zikloturisten kopuruak zelan egin duen gora.

**Baina egia da inguruan korrika ibiltzen diren asko ez direla herri lasterketetan parte hartzera animatzen.**

Bai, lehen esan dudan moduan, batzuek kirola anonimotasunean praktikatu nahi izaten dutelako. Beste batzuk, akaso, beldurtu egingo dira; azkarrenek erritmo bizia jartzen diote probari, eta lasterketa ikusten dabiltzanek pentsa dezakete lasterketa hori larregi dela eurendako.

**Bartzelonan, esaterako, herri lasterketa askotara jendea lasai ibiltzera joaten da. Akaso ez dira ibilbide osoa korrika egiteko gauza, eta oinez hasten dira. Bada jendea animatzeko modua.**

Bai, baina euskaldunak eta katalanak oso ezberdinak gara. Euskaldun bati galdetuz gero ea lasterketa bat oinez egingo lukeen, erantzuna, seguruenik, ezezkoa izango litzateke [Barre]. Oinez egiteko nahiago duela proban parterik ez hartzea erantzungo liguke.

**Gaztetan kirol ohiturak izan ez dituenarendako zailagoa da nagusitan kirol ohitura horiek bere egitea.**

Hori uste nuen nik ere, eta berez halaxe da, baina badira kontrako adibideak ere: gaztetan batere kirolik ez egin, parrandazale amorratuak izan, eta gaur egun lasterketetan tope-topera dabiltzanak.

## Sei kilometroko ibilbidea herriko kaleetan barrena

Gaur 20:00etan Ferixalekuan hasiko duten lasterketak sei kilometro izango ditu: "Korrika apur bat egiten duen edonork egin dezakeen lasterketa da. Hiru itzuli egingo dizkiogu bi kilometroko zirkuituari, eta lasai-lasai egiten duenak ere 40-45 minutuan amaituta izango du proba. Behobia-Donostia prestatzen dabiltzanek, berriz, abiadura apur bat entrenatzeko, txispa hartzeko erabil dezakete proba".

Ondoko planoan duzue ibilbidearen nondik norakoa, eta ibilbide horri hiru itzuli egingo dizkiote.





Bergarako Beñat Katalan, Idiazabalen kontrako partiduan, hegaletik jokaldia egiten. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Bergarak Hernani liderraren indarra neurtuko du bihar

## Aretxabaletak ere etxean jokatuko du, puntu kopuru bera duen Idiazabalen kontra

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Sei jardunaldi nahikoa dira denboraldiko lehen erradiografia egiteko, nahiz eta denboraldiak aurrera egin ahala orain *gaixo* daudenak errekuperatu egingo diren –daukan taldeagatik Aloña izango da horietako bat– eta orain ondo dagoenetako bat baino gehiago zailtasunetan ibiliko den.

Badirudi Hernani eta Real Union, orain momentuan, pausotxo bat aurrerago dabiltzala. Eta liderraren nagusitasun hori neurtzera zelairatuko dira Bergarako mutilak bihar (16:30) Agorrosinen.

Aretxabaletak ere etxean jokatuko du, domekan (16:30). Joan den astean Rafa Barrutiaren taldeari nahi baino gehiago okertu zitzaion Berioren kontra partidua (1-1), eta bigarren astez etxean jokatuta ez da komeni Idiazabalen kontra gehiago barkatzea.

Aloña Mendik eta Mondrak kanpoan jokatuko dute. Azken asteotako emaitzak ikusita, esan beharrik ez dago Oñatiko taldea kili-kolo dabilela, Pablo Diezen esanetan, "beheraldi psikologikoan murgilduta". Normala da animuz baxu egotea, orain arte gol gehien jaso dituen taldea da-eta Aloña (14).

Berion jokatuko du Aloñak, Mondrak aurrekoan 0-2 irabazi zuen zelaian, eta astelehenean *Harmailatik* saioan Mondrako aurrelari *Murua*-k garbi esan zion Aloñako aurrelari *Arrola*-ri: "Beriok ez dauka aparteko taldeirik, irabazteko moduko partidua izango da". Mondra dabil ondo, eta aurrealdean jarraitzeko Hondarribian bihar (16:30) jokoan dauden puntuak behar dituzte.

**BOLA-JOKOA** > EUSKADIKO HIRU-TXIRLO BOLO TXAPELKETA

# Euskadiko txapelketako bigarren jardunaldia egingo dute bihar Elgetan

## Joan den astean 65 lagun batu ziren Mallabian egindako lehen txapelketan eta bihar Elgetan jokalari kopuru bera batuko da bigarren saiorako



Elgetako bolatokian da hitzordua. GOIENKARIA

**X.U.** > BERGARA

Euskadiko hiru-txirlo txapelketak lau jardunaldi izango ditu, eta horietako bigarrena jokatuko dute zapatuan, 17:00etan hasita, Elgetan. Joan den asteburuan estreinatu zuten txapelketa, Goittan (Mallabia), eta hurrengoak azaroan jokatuko dituzte, Markinan eta Azkoitian.

Txapelketan esku hartzearren jokalari bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu, eta antolatzaileek aurreikusten dute 60 lagunetik gora izango direla bigarren hitzorduan, joan den astean Mallabian batu zen kopuru bera. Biharko jardunaldia txapelketarako puntuagarria izango da, baina sari propioak ere izango ditu: irabazleak 65 euro irabaziko ditu, bigarrenak 50 euro eta hirugarrenak 35 euro.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Lehen maila**
Reala-R.CD de la Coruña
Astelehena. 21:00. Donostia.

**Gazteen liga nazionala**
Retuerto-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Barakaldo.

**Gazteen euskal liga**
San Marcial-Bergara
Zapatua. 16:15. Irun.

**Ohorezko erregional maila**
Berio-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Berio.
Hondarribia-Mondra
Zapatua. 16:30. Ondartza
Bergara-Hernani
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Aretxabaleta-Idiazabal
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Erregional preferentea**
Lagunak-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Azpeitia.
Elgoibar-Antzuola
Zapatua. 16:30. Mintxeta.
Mondra-Zestoa
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Lehen erregionala**
Soraluze B-Bergara B
Domeka. 16:30. Ezozia.
Aretxabaleta-Soraluze
Domeka. 11:00. Ibarra.

**Ohorezko gazteak**
Burumendi-Mondra
Domeka. 16:30. Mutriku.
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak**
Eibartarrak-Bergara B
Domeka. 17:30. Unbe.
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Eskoriatza.
Arizmendi UDA B-Aretxab.
Domeka. 16:00. Almen.

**Ohorezko kadeteak**
Reala-Bergara
Zapatua. 12:30. Zubieta.
Ondarroako Aur.-Aretxab.Ar.
Zapatua. 17:00. Zaldupe.

**Emakumezkoen liga**
Mondra-Lagun Onak
Zapatua. 18:00. Mojategi.
Amaikak Bat-Arizmendi
Domeka. 16:00. Errotazar.

**Emakumezkoak, gazteak**
Urola-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Argixao.
Euskalduna-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Ubitarte.
Orioko-Bergara
Zapatua. 16:30. Mendibeltz.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**
Eskoriatza-Kurutziaga
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Bigarren maila**
Aretxabaleta-Power Rangers
Gaur. 20:45. Eskoriatza.

**Hirugarren maila**
Aloña Mendi-Hirukide
Zapatua. 16:00. Oñati.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo nazional maila**
Sustrai Aloña-UPV ALAVA
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
MU-Askartza
Zapatua. 20:00. Iturripe.

**Senior gizonezkoak**
MU-Atletico San Sebastian
Zapatua. 16:00. Musakola.

**Seniorrak, bigarren maila**
Aluminios F.-Sustrai Aloña
Gaur. 20:15. Zumarraga.
Soraluce BKE-Goierri
Domeka. 17:00. Labegarai.

**Senior emakumezkoak**
Krafft-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

**Gazte gizon, partaidetza**
MU B-Oiartzungo Sask.
Domeka. 16:00. Iturripe.
MCM Soarluce BKE
Zapatua. 09:00. Donostia.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa, giz**
Ford Mugarri-Urduliz
Zapatua. 16:30. Arrasate.
Corazonistas-Soraluce BKE
Zapatua. 18:45. Gasteiz.

**Emakumezko senior preferentea**
Usurbil-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Oiardo.

**Gipuzkoako lehen maila**
Decotena Pulpo-Arrasate
Zapatua. 18:15. Zumaia.

**Gipuzkoako big. maila**
Izarraitz Aloña-Groseko
Domeka. 12:00. Zubikoa.

### PILOTA

**Gipuzkoako txapelketa**
**Bergaran.** Egubakoitza. 19:15ean hasita:
Bergara-Antigua
Bergara Oiarpe2
Bergara-Antigua
Zapatuan, 17:00etan hasita:
Bergara 2-Arrasate 1
Bergara 3-Azkoitia3
Bergara5-Bergara4
Bergara-Ilunpe
**Eskoriatzan.** Egubakoitza. 19:30ean hasita:
Eskoriatza-Zestoa
**Aretxabaletan.** Egubakoitza. 20:00etan hasita:
Aretxabaleta-Hernani.
**Elgetan.** Zapatua. 17:00etan hasita:
Ozkarbi2-Aniztasuna

### BOLA JOKOA

**Euskadiko hiru-txirlo txapelketa**
Zapatua. 17:00. Elgeta.

### ATLETISMOA

**Gaueko II. Tafyd krosa**
Egubakoitza. 20:00. Arrasate (Ferixalekua). Izenematea lehenago.

### ERRUGBIA

**Senior Euskal liga**
Iruñea-Kanpanzar ART
Zapatua. 17:00. UPNAn.
Hernani/Arrasate-ATL.SS
Domeka. 10:00. Hernanin (lagunartekoa da).
Leintz Eskola Kirola
Zapatua. 10:00. Mojategi.

*Emakumezkoek, gazteek eta kadeteek atsedena dute.

### MENDIKO BIZIKLETA

**Arrasateko martxa**
Zapatua. 10:00. Musakola.
Izenematea lehenago.

### XAKEA

**Arrasate Hiria**
Hirugarren jardunaldia.
Egubakoitza, 19:00.

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO IRAKASLEEK?

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO IKASLEEK?


1. KONTZERTUA
urriak
22
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
SARRERAK ETA ABONUAK // SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO
BLACK RIVER
OÑATI
DESPREZIO
ARRASATE-BERGARA
LORD WITCH
BERGARA
LA-TOX
BERGARA
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
www.danbaka.com
BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte
LAGUNTZAILEA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
PREST
Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK
www.hotsak.com
SHOT!
PIL-PILEAN
B
kitto!
GAURKO
grupo SEIN taldea
GANESHA TATTOO
laino
SKATEPARK
anboto
komunikabideak
drogetenitturri
ANTOLATZAILEAK
Goiena 10 URTE
espaloia



**> DANBAKA**
Bergarako, Oñatiko eta Soraluzeko taldeek joko dute gaur Elgetan > 32



**> BERTSOAK**
Udalbiltzaren alde, txapelketa nagusiko finalisten saioa > 33

**> LIDE OSINAGA**
Oñatiarra da, 20 urte ditu eta gimnasia erritmikoa erakusten du; horrez gain, bitxiak egitea eta argazkiak ateratzea gustatzen zaio > 34



# Hamar mostra, 21 urte: txotxongiloen iraultza Bergaran



Moussoux-Bonté taldearen Twin Houses ikuskizuneko une bat. MIKHA WAJNRYCH

**HAMARGARRENA**
1991n egin zen lehenengoz, eta bi urtean behin egiten da

**ZORTZI IKUSKIZUN**
Nazioarteko artista onenak batuko dira Bergaran gaurtik domekara arte; zortzi lan, txoko ezberdinetan

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Bi urte pasa dira dagoeneko. Bueltan dator, Taun Taun antzerki taldearen eskutik, X. txotxongilo mostra. Lehena 1991n egin zen. Ordutik hona, Euskal Herriko eta Espainiako antzerki panoraman hutsune interesgarri bat bete du. Izan ere, Bergarakoa ikusle helduari begira pentsatutako Espainiako eta Euskal Herriko txotxongiloen lehen mostra izan zen.

Salbuespenak salbuespen, bi urtean behin antolatu du Taun Taun antzerki taldeak txotxongilo mostra, Bergarako Udalaren laguntzarekin. Ibilbide luzekoa da eta, normalean, arrakastarik ez duten ekimenek ez dute hainbeste urte irauten. Eta are gutxiago 21 urte luzean.

**MAGIA DUEN JAIALDI BEREZIA**

Mostra Taun Taun taldeko kideen txotxongiloekiko zaletasunaren emaitza da. Jaialdi berezia da eta magia osagai garrantzitsua du. Ez du inor axolagabe uzten: ez bisita egiten duen konpainia, ez artista, eta, noski, ezta ikuslea ere. Ikusleen artean, antolatzaileek jakinarazi dutenez, dagoeneko asko dira bi urtean behin izaten den zitari hutsik egiten ez diotenak.

**BEREZIKI HELDUENDAKO**

Familian gozatzeko ekimena da, baina bereziki helduendako. Eta kalitate handikoa, nazioarteko artista onenak batuko dira-eta gaur hasi eta domekan amaituko den mostran. Gainera, eta formatu txikiko mostra denez, esperientziak elkartrukatzeko topaketagune bilakatzen da. Izan ere, aste bukaeran zehar jatorri askotariko artistek ezagutza eta ideiak elkartrukatzeko aukera izango dute. Taun Taun Teatroarentzat ere esperientzia aberasgarria da, noski.

Zortzi ikuskizun izango dira. Bergarako txoko ezberdinak hartuko dituzte txotxongiloek: San Martin plaza, Zabalotegi aretoa eta gaztetxea, bereziki. Hala ere, mostrako azken ikuskizuna, En la Lona taldearen *Exodo* lana kalean bertan izango da, 21:30ean.

Hitzordu guztiz gomendagarria da mostra, beraz. Are gehiago, helduek irudimena garraiobide hartuta, *bidaia* ahaztezin bat egin dezaten zortzi txartel, zortzi ikuskizun, eskaintzen ditu-eta.

### Capses
Egubakoitza, 22. 19:00.
Zapatua, 23. 13:00 / 21:00.
Domeka, 24. 13:00 / 20:00.
Guztiak, San Martin plazan

Laitrum taldearen ikuskizuna. Ikuslea aktore bihurtzen da; emozioendako opari bat.



### Cabaré de hilos
Zapatua, 23.
Munibe plaza, 13:00 / 18:00.

Musika, dantza eta umorea maisutasun handiz konbinatzen dira Alemania eta Errusiako The Fifth Wheel taldearen ikuskizunean.



### Hotel Crab
Domeka, 24.
Zabalotegi, 20:00.

TrukiTrek taldearen lana ezustekoz, pasioz eta gaizkiulertuz bustitako komedia da. Hitzik gabekoa, eszenen segida eta mimika dira gidari.



### Twin houses
Egubakoitza, 22.
Zabalotegi, 20:00.

Mossoux-Bonte taldea dator, nahastea sortzeko lanarekin. Boterea nork duen jakitea ezinezkoa den dantzari bat eta bost maniki, protagonistak.



### Rua aire
Zapatua, 23.
Zabalotegi, 20:00.

El Retrete de Dorian Gray taldea txotxongiloen mundua berritu eta freskatzera dator, fantasia-bidaia baterako gonbita eginda.



### Exodo
Domeka, 24.
Kalean, 21:30.

Gernikan bizi baina jatorri argentinarra duen En la Lona taldeak iraganeko eta egungo desplazatuei omenaldia egingo die.



### Romances de ciego
Egubakoitza, 22.
Gaztetxea, 22:30.

Pep Gomez beteranoaren eskutik taberna, merkatuan eta kalean entzun daitekeenaren panpinen bidezko lekukotza.



### Pequeños suicidios
Zapatua, 23.
Gaztetxea, 22:30.

Gyula Molnar hungariarraren muntaia *Objektuen antzerkia* deritzon espezialitatean kokatzen da. Objektuak bere burua irudikatzen du.



ERAKUSKETA
### Fantasías mecánicas
Domekara arte (12:00-14:00 eta 18:00-20:30). Aroztegin.

Armando Angeles arduradun duen eta Diego Damian Gilardik "mekanismo xumez" egindako txotxongiloak.



**MUSIKA** > DANBAKA

# Finalerako sailkatzeko helburuarekin, lehendabiziko lau taldeen txanda gaur

20 talde izango dira lehian Elgetako Kafe Antzokian gaurtik abenduaren 17ra bitartean; finala, urtarrilaren 14an

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Dena gertu dago Danbaka musika lehiaketaren laugarren ekitaldiari ekiteko. Elgetan izango da hitzordua gaur, egubakoitza, 22:30ean. 20 talde izango dira lehian. Gaurkoaren ondoren, beste lau kontzertu izango dira: azaroaren 5ean, 19an eta 26an eta abenduaren 17an. Hiru talde onenak sailkatuko dira urtarrilaren 14ko finalerako.

Epaimahaia aspaldiko lagunek osatuko dute: Jul Bolinagak, RIP taldeko gitarra-jotzaile ohiak; Iñaki Bengoak, Gose taldeko kide eta Shot! grabazio estudioko arduradunak; Amaia Arriaranek, Arrasate Musikaleko Big Band taldeko abeslari ohiak; bere garaian Txibisto musika aretoan jardundako Julen Narbaitzak; eta Iker Barandiaran kazetari arrasatearrak.

**SARRERAK, 5 EUROTAN**

Kontzerturako sarrerak 5 eurotan eskuratu ahal izango dira (3 euro Gaztekutxarekin). Kontzertu guztiak –finala barne– ikusteko bonuak 22 eurotan jarriko dituzte salgai (12 eurotan Gaztekutxarekin). Maider Arregi Goienako kazetariak jardungo du aurkezle lanetan gaur. Ikuskizuna hastera doa...

**KONTZERTUA**

Gaur, egubakoitza, 22:30.
Elgetako Espaloia.
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

- > Black River
- > Desprezio
- > Lord Witch
- > La-Tox



**BLACK RIVER** | Oñati

Kepa Alberdi (ahotsa), Unai Urkia (baxua eta ahotsa), Josu Manuel (gitarra), Mikel Saiz (bateria) eta Alberto Millas (gitarra) oñatiarrek osatzen dute Black River. Metal core melodikoa egiten dute. Lehen urratsak 2007an egin zituzten, taldekideen begiko taldeen bertsioak eginda. Metal estilora bidea jarri ostean, abesti propioak sortzen hasi ziren. Maketa grabatu zuten udan eta aurki salgai jarriko dute. Danbakaren lehen kontzertuari hasiera emango diote gaur.



**DESPREZIO** | Bergara-Soraluze

Punk-rocka egiten dute, edo, taldekideen esanetan: "Irteten zaiguna jotzen dugu". Hiru lagun dira taldean: Manzana (gitarra eta ahotsa), Izu (baxua eta ahotsa) eta Porru (bateria eta ahotsa). Arrasaten 2003. urtean sortutako taldea da eta hasiera baten lau neska ziren taldean; gerora, hainbat aldaketa etorri ziren. Orain dela urtebete diskoa grabatu zuten Akrata taldeko Karlos eta EUren laguntzarekin. 15 kantu propio batu zituzten bertan eta 3 eurotan jarri zuten salgai aipatutako lana.




**LORD WITCH** | Bergara

Lord Witch taldea 2004ko udan Bergaran sortutakoa da. Sei lagun dira: Jordan (ahotsa), Jorge (gitarra eta koruak), Euge (gitarra eta koruak), Javi (baxua), Iker (bateria) eta Carlos (teklatuak). Haien arabera, power metal eta heavy metal melodikoa egiten dute. Euskal Herrian ez ezik, Madril, Zaragoza eta Badajoz aldean ere kontzertuak egin dituzte azkenaldian. *Dragon flight* diskoa atera zuten iaz. Bigarren aldiz hartuko dute parte Danbaka lehiaketan.



**LA-TOX** | Bergara

Musika elektronikoa lantzen du Bergarako bikoteak. Aurten sortutakoa da La-Tox proiektua, aldi berean beste zenbait proiektutan murgildurik dauden Txus Arriaranen (Yotox) eta Laida Ballasterosen (L.2.B.2) elkarlanaren ondorioz. Arriaran programazioaz eta sintetizadoreez arduratzen da eta Laida Ballasterosek (L.2.B.2) erritmo programazioak egiten ditu; horrez gain, zuzeneko bateria elektronikoa jotzen du. Proposamen interesgarria La-Toxek dakarkiguna.


ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

BABESLEAK: gizarte kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Elgetako Udala



Anthony Blake
Magia ikuskizuna
Badaude sarrerak!

Urriak 23, zapatua, 22:30ean
Urriak 24, domeka, 20:00etan.

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

**BERTSOAK** > DOMEKAN, 18:00ETAN

# Azken bertso finaleko protagonistak etzi Arrasaten

## Udalbiltzaren aldeko jaialdia izango da domekakoa; sarrerak 10 eurotan daude salgai

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako azken finalean oholtza gainean izandako zortzi bertsolariak izango dira domekan Amaia antzokian, 18:00etan: Maialen Lujanbio txapeldunarekin batera, Amets Artzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegik kantatuko dituzte bertsoak. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Josu Goikoetxeak jardungo du.

**UDALBILTZAREN ALDE**

Beraz, luxuzko kartela osatu dute antolatzaileek. Udalbiltzaren aldeko jaialdia izango da domekakoa, eta, antolatzaileek azpimarratu dutenez: "Are garrantzitsuago guretzat: bertsolariengandik eurengandik jaio den elkartasun ekimena izan da jaialdi hau. Bihotzez eskertzen dugun ekimena. Eskerrak emateko orduan ez dugu ahaztu nahi Arrasateko Udalaren prestutasuna, jaialdia egiteko lekua eta erraztasun guztiak eman dizkigulako".

**SARRERAK, 10 EUROTAN**

Sarrerak domekan bertan eskuratu ahal izango dira Amaia antzokiko leihatilan. Dena dela, aurrez erosteko aukera ere badago, Arrasateko Irati eta Kajoi tabernetan eta Bergarako eta Oñatiko Arranon. Batzen den dirua Udalbiltza auziak eragindako gastuei aurre egiteko bideratuko dute. Hain zuzen ere, astelehenean, urriaren 25ean, Udalbiltzaren kontrako epaiketak aurrera jarraituko du Madrilen. Beraz, Arrasateko bertso jaialdian ia auzipetu guztiak izango dira, eta handik furgonetatan Madril aldera abiatuko dira. Epaiketari dagokion azken bidaia auzipetuek bertsolarien eta bertsozaleen berotasun hauspoaren laguntzarekin egitea lortu nahi dute antolatzaileek.



Joan den abenduko finalistak: Egaña, Colina, Mendiluze, Iturriaga, Arzallus, Maia, Lujanbio eta Sarriegi. BERTSOLARI ELKARTEA

**LUJANBIO TXAPELDUNA**

Iaz abenduaren 13an Barakaldoko BECen jokatutako finalean Maialen Lujanbiok jantzi zuen Euskal Herriko txapela, Amets Artzallus bigarren izan zen eta Jon Maia hirugarren. Aurreko lau finalak irabazi ondoren, Andoni Egañak laugarren postua eskuratu zuen orduan. Lehen aldiz emakume bat dugu txapelaren jabea eta Egañak iragarri zuen ez dela berriro txapelketara aurkeztuko.

ELGETAKO
III. PINTXO LEHIAKETA
Urriak 24, domeka

**10:00:** Plazatik, irteera gaztetxoendako perretxikoak biltzera.
**11:30:** Plazan, PERRETXIKO ERAKUSKETA.
**13:00:** **III. pintxo lehiaketa**. Pintxoen erakusketa plazan.
**Pintxoak: 1€.**
**Haizea tabernan, Ostatu jatetxean, Iñaki jatetxean, Bolatoki tabernan eta Patxi tabernan.**
**13:30:** Pintxo lehiaketaren sari banaketa. Txapela eta garaikurra. Epaimahaikideak: Ozkarbi, Intxorta, Mendi Mendian elkarteetako ordezkariak.
**13:30:** **Elgetaklik** lehiaketaren sari banaketa
**14:00:** **Babajana** 15€.
Menua: babak, saiheskia, postrea, edariak eta kafea.

Goizean zehar **trikiti doinuak** tabernaz taberna.

BOLATOKI taberna
Artekale 4
943 76 82 84
Elgeta

Elgetako Udala
Turismo saila

Haizea Taberna
Salbador 5 • Elgeta
Tel.: 943 76 82 56

Patxi Taberna
Salbador kalea Elgeta
Tel.: 943 76 82 20

IÑAKI Jatetxea
San Roke 2 • Elgeta
Tel.: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA
Gudarien bidea 4 • Elgeta
943 76 80 23

**Lide Osinaga** > Gimnasta eta gimnasia erritmikoko irakaslea

# "Kirol zorrotza eta sakrifikatua da, diziplina handia eskatzen duena"

Gimnasia erritmikoaren inguruan antolatzen du agenda Lide Osinaga oñatiarrak. Gimnasta moduan dihardu Bergarako Ariznoan eta eskolak ematen ditu Antzuolan eta Oñatin. Dena den, denbora dauka bitxiak egin eta saltzeko. Paparrekoak modan jarri direla esan digu. Argazki kamera ere ez du ahazten. "Edozeri egiten diot erretratua", esan digu.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Lide Osinaga gimnasta da, gimnasia erritmikoa egiten du Bergarako Ariznoa taldean. Bestalde, gimnasia erritmikoko irakaslea da Oñatin eta Antzuolan, eta Herri Egunean bitxiak saltzeko postua jarri zuen artisau azokan.**

**4 urterekin hasi zinen gimnasia erritmikoa egiten.**

16 urte daramatzat gimnasta moduan. Etxean egun guztia dantzan egoten nintzela ikusita, amak erabaki zuen gimnasia erritmikoa egingo nuela. Horrela hasi nintzen. Adelaida irakaslearekin ikasi nituen oinarrizko gauzak. Ondoren, Visirekin hasi nintzen eta orain dela hiru urtetik Bergarako Ariznoa taldekoekin dihardut.

**Zergatik Bergarara?**

Ariznoako kideek deitu zidaten euren taldean gimnasta bat falta zela esateko. Gainera, Oñatin bakarra nintzen goiko kategorietan eta ariketak bakarka egiten nituen. Hori guztiori ikusita, Bergarara joatea erabaki nuen, eta oso pozik nago.

Lerro hauek aprobetxatu gura ditut Ariznoakoei eskerrak emateko emandako aukeragatik.

**Telebistan ikusten ditugun punta-puntako gimnastek egiten duten lana eta zuena berbera da?**

Eurek duten maila izugarria da, eta lan handia egin behar da hori lortzeko. Baina herri mailako elkarte xumeetan lantzen dena punta-puntako gimnastek landutakoaren berbera da. Ariketak egiteko erabiltzen ditugun aparailuak berberak dira: baloia, zinta, uztaia, soka eta mazoak.

Gu banaka eta taldeka lehiatzen gara eskolarteko txapelketetan.

**Ze aparailu duzu gustukoen?**

Zintarekin lan egitea atsegin dut, baina Ariznoan nagoenetik ez dut erabili. Iaz mazoekin egin genuen koreografia eta aurten sokarekin hasi gara.

**16 urte daramatzazu gimnasia erritmikoa egiten. Zer-nolako kirol mota da?**

Kirol zorrotza eta sakrifikatua da, diziplina handia eskatzen duen horietakoa. Arduratsua izan behar duzu. Ikasturte osoa ematen dugu koreografia berbera lantzen, behin eta berriz. Helburua txapelketetara ondo heldu eta lan ona egitea da.











MIREIA BIKUÑA

**PERTSONALA**

**Herria:** Oñati. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Irakasle ikasketak. **Zaletatsunak:** Gimnasia erritmikoa, bitxigintza eta argazkilaritza. **Gorrotatzen duzun zer edo zer:** Gezurrak. **Gomendatzeko moduko film bat:** *Quédate a mi lado*. **Liburu bat:** Carlos Ruiz Zafonen *La trilogía de la niebla*. **Gimnasta bat:** Anna Bessonova. **Argazkia ateratzeko leku bat:** Oñatiko Pottorrosin. **Bizi izateko edo parranda egiteko leku bat:** Oñati. **Musika talde bat:** Askotariko musika entzuten dut. **Bidaiatzeko leku bat:** Italia.

**Irakasle lanak ere egiten dituzu gimnasia erritmikoan diharduten neskekin.**

Bai, hala da. Iaz hasi nintzen Aloña Mendiko neskekin eta aurten Antzuolako taldearekin dihardut.

**Zer da gogorragoa, gimnasta ala irakasle izatea?**

Oso ezberdinak dira. Gimnasta izateko lan handia egin behar da, eta gustuko dut. Era berean, irakasle izateko pazientzia handia behar da, batez ere txikienekin. Baina hori ere gustuko dut.

Gimnasia erritmikoan gertatzen dena da adin batera heldu ta askok utzi egiten dutela, bakarrik geratzen direlako edo kirol honek eskatzen duen sakrifizio maila emateko gertu ez daudelako. Nik, bakarrik geratu nintzenean, aukera izan nuen Bergaran jarraitzeko.

**Ze erakusten diezu?**

Entrenamendua hasteko jokoak egiten ditugu, eta apurka-apurka hasten gara luzatzeekin, ariketekin...

**Zer ematen dizu irakasle lanak?**

Asko betetzen nau. Irakasle ikasketak egin nituen, eta arlo asko lantzeko aukera ematen dit.

**Gimnasia alde batera utzita, bitxiak egiten dituzu.**

Bai, hala da. Niretzako eraztunak, eskumuturrekoak, belarritakoak... egiten hasi nintzen. Ondoren, lagunak hasi zitzaizkidan eskaerak egiten. Era berean, aitaren dendan jarri nituen paparreko batzuk salgai.

**Herri Eguneko artisau azokan postua jarri duzu azken bi urteotan.**

Nire burua ezagutzera emateko aukera ona da. Lagunek eta etxekoek bazekiten bitxiak egiten nituela. Gustura nago Herri Eguneko artisau azokako emaitzarekin.

**Non ikasi duzu bitxiak egiten?**

Ez dut ikastarorik egin. Nire kabuz ikasi dut, eta oraindik asko daukat ikasteko.

**Zer saltzen duzu gehien?**

Egia esan, denetik saltzen dut: eraztunak, diademak, lepokoak, eskumuturrekoak, urkilak... Azkenaldian, paparrekoak modan jarri dira. Paparreko bereziak eskatzen dizkidate.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

*sailkatuak@goiena.com* edo *www.goiena.net/sailkatuak*

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20,50 € (BEZ BARNE).**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 54 m²ko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea, komun bat, trastelekua eta igogailua. 667 95 31 09.

**Bergara.** Artzamendi kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi komun eta balkoi handia. Eguzkitsua. 656 73 57 74.

**Oñati.** Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, ganbara eta garajea. 647 24 80 02.

**Oñati.** Santa Marina plaza inguruan 60 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela handi, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 60 metro koadroko ganbara, duplexa egiteko aukerarekin. Guztira: 120 metro. Balkoi handia eta oso eguzkitsua. 275.000 euro, negoziagarriak. Deitu telefono honetara: 610 97 04 32.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate ondoan. Ekonomikoa. Berokuntza zentralarekin eta eguzkitsua. 647 22 09 38 edo 945 44 51 11.

**Arrasate.** Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. 656 75 00 94.

**Arrasate** erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, gela txiki bat, sukalde-egongela eta komuna. Oso argitsua. Estreinatzeko. 650 €. 653 95 19 08.

**Oñati.** 100 m²ko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 663 69 31 16.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Neska bergarar euskaldunak etxebizitza txikia (estudioa, ganbara...) hartuko luke errentan. 659 66 02 57.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera. 943 53 21 62.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu Erguinen etxebizitza osatzeko. 670 59 73 62.

**Arrasate** erdigunean etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. Hilean 200 euro, gastuak barne. Iñaki. 608 49 89 93.

**Oñati** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko Errekalden. Deitu 18:00etatik aurrera. 653 74 87 51 edo 699 46 76 11.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Oñati.** Garaje itxia salgai Arantzazu kaleko 21ean. 18 metro koadro. 635 06 24 79.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Alokatzeko garaje bila nabil. Ahal bada, Antigua auzo inguruan. 679 31 75 50.

## 3/ LOKALAK

### 302. EROSI

**Oñati.** Lokala erosiko nuke, 25-120 metro koadro bitartekoa. 943 79 66 75.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lonja ematen da errentan. 690 95 45 47.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Andre euskaldun bat behar dugu gure umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi bat ordu egunean. 688 62 83 86.

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 615 76 94 58.

**Bergara.** Neska bat behar dut pertsona edadetuak zaintzeko baserri baten, neskame. Opor batzuk ordezkatzeko. Hilabete eta erdi. Blanca. 639 43 84 92.

**SIRIMIRI**

**Bi urteko esperientziadun neska behar dugu barra eta jangelarako.**

**943 76 59 19**

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Asteburu eta jaiegunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko... 682 31 97 37.

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu arratsaldeetan umeak zaintzeko. 615 76 19 82.

**Arrasate.** Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28.

**Arrasate** eta inguruko herrietan neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. 680 53 97 54.

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Deitu telefono honetara: 671 44 81 51.

**Bergara.** Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. Deitu telefono honetara: 673 22 38 00.

**Bergara.** Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686 11 24 66.

**Bergara.** Neska euskalduna gertu 17:00etatik aurrera ume edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. 699 00 99 08.

**Bergara.** Neska gertu 08:00etatik 10:00etara etxeko lanak egiteko. 943 76 28 12.

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Bergaran lan egingo nuke umeak zaintzen, nagusiei laguntzen edo orduka garbiketa lanetan. Deitu eguerdietan 16:00ak arte edo gauetan. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordutegi malgua. Beatriz. 610 99 70 46.

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. 626 78 22 95.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Luisa. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Gauez ere bai. Autoa daukat. 622 05 21 74.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... 663 46 93 60 edo 943 08 11 07.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu asteburuetan sukaldari jarduteko. Zerbitzari ere arituko nintzateke. 619 78 63 41.

**Debagoiena.** Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 617 93 83 39.

**Debagoiena.** Gazte boliviarra lan egiteko gertu. B gidabaimena dauka. 606 78 35 94.

**Debagoiena.** Ile-apaitzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Mutil gaztea askotariko lanetarako. 654 98 69 14.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo zerbitzari zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. 646 07 79 60 edo 943 77 01 31.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 679 04 42 68.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. 648 01 40 94 edo 943 08 20 79.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610 60 62 29.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671 15 96 97.

**Debagoiena.** Sukalde eta komunak berriztatzen ditut, prezio onean. 663 72 37 44.

**Eskoriatza.** Neska euskalduna gertu goizez etxeko lanak egiteko. 616 68 02 18.

**OÑATI**

**Estetika zentroa errentan eman edo eskualdatzen da, erretiroagatik. Bezero finkoak.**

**660 44 64 31**

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Filosofiako irakasle baten bila nabil. 618 79 47 48.

**Kontabilitate eta ekonometria** eskolak jasoko nituzke Arrasaten edo inguruan. 626 24 82 36.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Goi mailako ingeniari industriala naiz. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa... maila guztiak, unibertsitatea barne. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Ikasgai guztietan eskola partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH... Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28.

**Arrasate.** Ikasle euskalduna gertu Lehen Hezkuntzako edo DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei eskola partikularrak eman edota etxeko lanekin laguntzeko. Norberaren etxean egiteko aukera. 607 96 78 65.

**Arrasate.** Neska euskalduna LHko eskola partikularrak emateko gertu. 615 76 19 82.

**Arrasate.** Neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian diplomaduna eta esperientziaduna. 652 73 14 44.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikasle euskalduna arratsaldez eskola partikularrak emateko prest. 13:00etatik aurrera deitu. 636 12 05 79.

**Arrasate.** Unibertsitateko neska euskalduna prest LHko ikasleei eskolak emateko. Eskolara umeen bila joateko aukera. Esperientzia. 645 70 89 95.

**Bergara.** Ingeleseko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Azterketetarako gertatzen da. 618 91 32 89.

**Bergara.** Irakasle esperientziadunak eskola partikularrak ematen ditu. 636 16 30 10 edo 943 76 49 41.

**Bergara.** Kaxoi flamenkoko eskolak (bakarkakoak zein taldekoak) ematen dira, edozein musika estilori aplikatutakoak. Guille. 680 49 07 99 edo 943 76 34 82.

**Bergara.** Kaxoi flamenkoko eskolak (bakarkakoak zein taldekoak) ematen dira, edozein musika estilori aplikatutakoak. Guille. 680 49 07 99 edo 943 76 34 82.

**Bergara.** Pintura eta marrazketa eskolak ematen dira. 943 76 40 14 edo 651 74 21 54.

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza dut ingelesa. Deitu telefono honetara: 696 63 97 48.

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut eta euskaraz ere badakit. 682 64 57 37.

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut. 682 64 60 99.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Opel Corsa** 1,5 Diesel autoa salgai. 17 urte. 250.000 km. 700 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 655 72 41 22.

**VW Transporter** furgoneta salgai. 1,9 turbo diesela. 6 plaza. 2000ko abenduan matrikulatua. Udaleko zerga 2011ko ekainera arte ordainduta. IAT (ITV) otsailera arte. 180.000 km. 6.590 euro. Deitu telefono honetara: 678 60 42 02.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Persiar katakumeak** salgai. Irailaren 9an jaiotakoak. Zuriak. Oso maitekorrak dira eta pentsua jaten hasi dira jada. Bi ar eta eme bat. Ikusteko aukera. 943 79 96 55 edo 685 72 46 86.

### 703. EMAN

**Cocker ingelesa** ematen da Arrasaten, ezin dugulako zaindu. Emea, beltza, txerto eta mikrotxiparekin. Lau urte dauzka. Maitagarria da, eta txakur ona. Ondo zainduko duen norbaiti bakarrik emango diogu. Deitu telefono hauetara: 943 79 82 43 edo 943 79 97 17.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Home Cinema** salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 943 79 60 89.

**Karabana** salgai. Adria Unica D-391-DK. Ondo zainduta. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 636 85 74 43.

**Karabana** salgai. Caravelair Bahia 460. 4 pertsonarentzat. Bi ohe handi. 1986koa. Matrikula frantsesa. Abantze eta guzti. Prezio onean. Deitu telefono honetara: 606 53 53 52.

**Ordenagailua.** Mahaiko ordenagailua salgai. Deitu telefono honetara: 943 79 60 89.

### 803. EMAN

**'Pyrenaica',** 'Integral', 'Kezka' eta 'Bike' aldizkari zaharrak ematen dira. Deitu telefono honetara: 658 71 44 37.

### 806. GALDU

